goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-03-30
EGUBAKOITZA
503. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

Eñaut Elorrieta. | DANI BLANCO

Xabier Lete gogoan, berrituta

Kantaldia egingo dute bihar Arrasaten | 24

Arrasate Herri Eskola: hamar urte aurrerapausoak egiten etengabe | 10

Esne Beltza, La Pegatina eta Bizardunak, Mundumiran | 5

Agur esan diete gaztetxeari eta Oñatiko Gazte Asanbladari | 15

LAN ERREFORMAREN AURKA, LANTOKIAK HUTSIK ETA KALEAK BETETA

Jarraipena erabatekoa izan zuen grebak atzo. Eskualdeko manifestazioa, Arrasaten, jendetsua izan zen oso. | 4

Arrasateko Maala kalea, atzo arratsaldeko manifestazioa handik igarotzean. | MIREN ARREGI

SINADURAK

Non eta nola egin dezakegu? | 6
OSKAR ELIZBURU

6 | **Beharrezkoa da hori?**
ARANTZAZU EZKIBEL

Greba ondorengoak | 32
AGURNE BARRUSO

ASTEKO GAIA **2** | DEBAGOIENA **4** | IRITZIA **6**
ELKARRIZKETA **8** | HERRIAK **10** | KIROLA **22**
KULTURA **24** | ZURE IRAGARKIAK **27**
TELEBISTA-IRRATIA **28** | EZKONTZAK **29**
ESKELAK **29** | NON-ZER **30**

"Indusketak egingo ditugu Atxorrotzeko ermitako lurrean"

BEÑAT HERCE
Eskoriatzako alkatea, Goiena telebistako HARIRA saioan | 18

Erramu-zapatua: urteko hitzordu nagusienetakoa Aste Santuaren atarian Bergaran

Kalesan ibiltzeko aukera eskainiko dute dendari eta tabernariek | 14

Ekainaren 18an inauguratuko dute ospitale berria | 2

Agur partidua jokatuko du Natra-Oñatik zapatuan Zubikoan

EBA mailan azkeneko partidua jokatuko dute | 22

Bi hilabete eta erdi bakarrik falta da ospitale berria inauguratzeko

- Ekainaren 18an zabalduko ditu ateak
- 95 ohe ditu, eta beste 15 ipini ahal izango dira
- Denetara, 204 aparkaleku berri izango ditu

Laugarren solairuko *hall* bat.

Gela tipiko bat, oheburukoak dagoeneko ipinita.

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Debagoiendarrak luzaroan zain izan dituen ospitale berria ia guztiz gertu dago, eta ekainaren 18an inauguratuko dute. Momentu horretatik, erabiltzaileek hara joan beharko dute oraindik gaur egungo ospitalean egiten dituzten egiteko eta zerbitzu guztietarako. Ospitaleko gerenteak, Antonio Arraitzak, inaugurazio-data hori jarri izana "helburu anbizioduna" dela esaten du, eta "jende asko lan handia" egiten dabilela dena borobiltzeko: "Elektrizitate, gas, iturgintza instalazioak eginda daude, eta dena ondo dagoela eta segurua dela egiaztatzen dabiltza". Ospitalearen atzealdea urbanizatzea eta aparkalekuak egitea ere falta da. Azken hilean, dena garbituko dute eta bulego zein ospitale-ekipamenduak ipiniko dituzte.

Ospitale berria, Larrialdien sarrera ikusten dela. | LEIRE KORTABARRIA

Ospitale izateko diseinatua

"Ospitale baten bihotza hementxe dago, eraikin berrian", esaten du Antonio Arraitzak: kirurgia osoa –sei ebakuntza-gela (orain lau dira), ospitaleratze bako 10 kirurgia-unitate (bost daude) eta anestesia ondorengorako zortzi postu (orain hiru dira), dena 1. solairuan. Bigarren eta hirugarren solairuetan, gelak daude, hau da, ohiko ospitaleratzea; laugarren solairuan, Haur-Ama unitatea; behe-solairuan, Larrialdiak –orain ez bezala, larrialdiek bere sarrera zuzena izango dute, atzealdean, hain zuzen ere– eta Erradiologia.

Zerbait azpimarratzekotan, honakoa azpimarratzen du Antonio Arraitza gerenteak: "Ospitaleratzeari dagokionez 40 urte dituen ospitale batetik eta berez ospitale izateko propio diseinatu ez zen eraikin batetik honakora pasako gara: ospitale izateko diseinatua, zaharraren hiru halako metro koadro dituena, teknikoki askoz hobea eta askoz erosoagoa, eta pazienteek hori igarriko dute".

Eguneko Ospitalea indartu

"Gela handiak" direla azpimarratzen du gerenteak. Honela dio: "Ekainean, 95 oherekin hasiko gara, baina 110 ohe eduki ditzake ospitaleak. Uste dugu 95 nahikoak direla Debagoieneko beharretarako". Bakarkako 23 gela izango dira; bikoitzak, 36; eta lau isolamendu -gela. Gaurko ospitalean, denetara 36 gela dira, denak bikoitzak.

Ohe guztiak hiru solairutan banatuko dira: 2.ean, kirurgia -ospitaleratzea (34 ohe); 3.ean, mediku-ospitaleratzea (44); eta 4.ean, Haur-Ama unitatea (17). Gainera, susperraldirako edo gaixondorako, konbalezentziarako ere erabiliko dira oheak, orain arte ez bezala. Erresonantzia magnetikoak egiteko unitate mugikorra dagoeneko lanean da. Bestalde, Zaintza Paliatibo Unitate berria ere izango da.

Haur-ama Ospitaleratze Unitatea berria da –gaur egun, bestelako pazienteekin batera ospitaleratzen dituzte ama eta ume jaioberria– eta hiru erditze-gela izango ditu, orain baino bat gehiago; baita dilatatzeko bainuontzia ere. Gelak banakakoak izango dira. Bestalde, endoskopiak egiteko unitate espezifikoa izango da ekaina ezkero.

Eskaintza beste modu batzuetara ere hobetuko du Debagoieneko Eskualde Ospitaleak: hala, Eguneko Ospitaleratze unitateari garrantzi handiagoa eman diote arduradunek. 2010ean, %32 handitu zen zerbitzu hori, eta handitzen jarraitzeko joera du. Kirurgia anbulatorio nagusirako

Ekainean, 110 autorendako lekua

Osakidetzak eta Arrasateko Udalak jarduera protokolo bat adostu dute ospitalearen aparkaleku eskasia konpontzeko, eta 204 leku berri izango dira. Ekainaren 18an, ospitale berriaren 2. sotoan 63 leku izango dira, eta eraikinaren atzealdean, beste 47.

Ospitale berriaren eskuman, oraingo ospitalearen atzean dauden bi eraikinak botatzen dituztenean, aparkaleku gehiago egingo dituzte haien lekuan. Azaroan, atzeko eraikinaren tokian 57 aparkaleku egokituko dituzte. 2014a eta gero, gaur egun ospitalearen larrialdi eta sukalde zerbitzuak hartzen dituen eraikina botako dute, eta han beste 37 aparkaleku egingo dituzte.

IparProject
www.iparproject.com
info@iparproject.com
Barne diseinua - Gremioen koordinazioa
Erreforma eta ekipamendu integrala
Altzariak eta merkatuko lehen markak

BERGARA
Telleria 23 - D5 pabilioia. Labegaraieta industrialdea
Tel.: 943 76 98 30 / Faxa: 943 76 52 44
AZPEITIA
Landeta auzoa. Atxubiaga 5 - Behea
Tel.: 943 15 03 33 / Faxa: 943 15 73 16

Larrialdi sailak 15 obserbazio-ohe izango ditu.

Haur-Ama unitateko harrera eta, ezkerrean, pasilloa eta gelak.

Ospitale modernoa

PRESTAZIOAK Martxoa ezkero, erresonantzia magnetikoak egiteko unitate mugikorra du ospitaleak. Ekainean, Hematologia ere izango du, Gasteizekin koordinatuta.

ALTERNATIBAK Ospitaleratze modu berriak indartzen dira: etxeko ospitaleratzeak 10 postu izango ditu. Larrialdietan, zortzi obserbazio-ohetik 15era pasatzen da.

EKIPOA Teknologia eta aurrerapen berrienak izango ditu. Adibidez, Erradiologia gelak guztiz digitalizatuta daude.

BERRIA Digestio-aparatuko eta arnas aparatuko endoskopiak egiteko unitate espezifikoa izango du ospitaleak. Baita Urologia Kirurgia ere.

ESANAK

"Ospitale erosoa da, gela handiekin eta teknikoki aurreratua"

"Instalazioak konprobatzea falta da; gero, garbitzea eta ekipatzea"

ANTONIO ARRAITZA | GERENTEA

Erizainendako gela, ospitalearen koloreekin.

Oztopo arkitektonikorik gabe. | ARGAZKIAK: LEIRE KORTABARRIA

DATUAK

23
OHE
Oraingo eraikinean baino 23 ohe gehiago izango ditu ospitaleak.

17
OHE
Ama eta umeendako unitate berezia izango da, 17 oherekin; orain, ohiko solairuan egoten dira.

4
LARRIALDI-OHE
Pediatria larrialdiak bereizita egongo dira, eta umeendako lau ohe izango dituzte Larrialdiek.

–gaua ospitalean ematerik eskatzen ez duena– joaten diren pazienteendako edo zaintza konkretu batzuk behar dituztenendako da zerbitzu hori. Arraitzaren esanetan, "kirurgia, gero eta gehiago, anbulatorioa da, eta eskualde ospitale baten, are gehiago. Horregatik, Eguneko Zentroa, bost postu izatetik, 10 edukitzera pasatuko da".

Etorkizunerako prestatuta

Horrekin guztiarekin, Debagoieneko eta Aramaioko 63.893 biztanleei zerbitzua emango die ospitaleak. Honako ekintzak aurreikusten dituzte aurtengo: 5.471 ospitaleratze (2011n, 5.211), 3,65 eguneko batez besteko egonaldia (2011m, 3,48), 4.313 ebakuntza (2011n, 4.108); 37.784 larrialdi kasu atenditzea (2011n, 35.985), eta 600 erditze (2011n, 572).

Denborarekin, Neurologia, Endokrinologia eta Hematologia unitate medikuak ere izango dira –azken hori, Gasteizko ospitalearekin elkarlanean–, eta Urologia ebakuntzak ere egingo dituzte ospitalean. 2013an zerbitzu gehiago ipini gura dituzte, hala nola tratamenduan edo bularreko minbizirako kimioterapian dauden gaixoendako zerbitzuak.

"Gaur egungo eta etorkizuneko premien araberako tamaina du", esaten du Osakidetzak. Hala, helburuetako bat da gaur egungo erabiltzaileak gusturago egon daitezen ospitalearekin, "eta gaur egun batik bat eskaintza pribatua erabiltzen duten beste multzo batzuk (Lagun-Aro) erakarri", gaineratzen du Sailak.

Debagoienekoaren "erreferentzia ospitalea" Gasteizko Unibertsitate Ospitalea izango da, hango ospitale bateratu berria. "Betidanik izan da hala, eta aurrerantzean ere bai", esaten du Arraitzak.

Oraingo ospitalea berrantolatu

Proiektu berria ez da ekainaren 18an bukatuko. Gaur egungo ospitalearen eraikinean kanpo kontsultak, diagnosi probak eta bestelako zerbitzuak ipini eta 2014ko uztailean zabalduko dute berriz. Hori eta gero, gaur egun Larrialdiak eta sukaldea dituen eraikina bota eta beste 37 aparkaleku egingo dituzte han. Segidan, Lehen Arretako kontsultak handitu eta Arrasateko Buru-osasun Zentroa gaur egungo anbulatorioaren eraikinean ipiniko dute.

Azkenik, oraingo eraikina handitzeko aukera ere egongo da, beharra izanez gero.

GOIAZ! Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka 2012 Apirilak 19-20

LANGILE ETA LANGABEENTZAKO HITZALDI INTERESGARRIAK KULTURATEN

"LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK DEBAGOIENEAN"
APIRILAK 19, OSTEGUNA (18:00)
Ikasle eta enpresetako giza-baliabideen arduradunekin LHri buruzko mintzaldia.

"PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK"
"ENPRESA ETA FORMAZIOA"
APIRILAK 17, ASTEARTEA (18:00), gazteleraz.
APIRILAK 20, OSTIRALA (10:00), euskaraz.

"LAN-ELKARRIZKETA NOLA PRESTATU: AURKEZTU ETA KONBENTZITU"
APIRILAK 20, OSTIRALA (12:00)
Aurrez izena eman.

ARRETA PERTSONALIZATUA zalantza profesionalak argitzeko edota interesatzen zaizun zentro edo titulazio bat ezagutzeko zentroko arduradun/irakasleren baten eskutik. Ordua eskatzeko, deitu 943 79 30 90 telefonora edo idatzi debagoiena.goiaz@gmail.com helbidera.

www.facebook.com/goiazdebagoiena

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK EZAGUTUZ

"Goi-mailako zikloan teoria asko ikasten da, eta enpresa asko ere ezagutu ditut"

Monsef Amzaouri marokoarra da, Tetuangoa, eta 21 urte ditu. Bere herrialdean Lanbide Heziketako Fabrikazio Mekanikoko erdi mailako ziklo bat egin zuen, eta orain Aretxabaletara etorri da, ikasketekin jarraitzera.

Zer dela-eta etorri zara Marokotik Aretxabaletaraino goi mailako ziklo bat egitera?

Nire nahia Pulbimetalurgia ikastea zen, eta Espainia mailan Aretxabaletan bakarrik eskaintzen dute ziklo hori. Baina talderik sortu ez zenez, eraikuntza metalikoen zikloa aukeratu nuen.

Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?

Nire amaren bitartez. Bera Letretan lizentziaduna da eta txikitatik ikasi du Espainiako hezkuntza-sisteman. Berak ondo daki Marokoko eta Espainiako hezkuntza-sistemen arteko aldea. Marokoko hezkuntza-sisteman Ekonomia ikasten hasi nintzen, baina emaitzekin konforme ez, eta gaztelaniaz nekienez, amak proposatu zidan Tetuanen dagoen Lanbide Heziketako Juan de la Cierva institutu espainiarrean ziklo bat egiteko. Amaren proposamena onartu nuen, nik 17 urte besterik ez nuen, eta orain pozik nago hartutako erabakiarekin.

Zer azpimarratuko zenuke Lanbide Heziketan?

Batez ere goi-mailako zikloan teoria asko ikasten da, eta enpresa asko ere ezagutu ditugu, egin ditugun bisitetan. Oraintxe praktikak egiten ari naiz, esperientzia hartzen, eta horri buruz oraindik ezin dut askorik esan.

Orain Italiara zoaz, Leonardo programaren bitartez, ezta?

Bai. Bertan enpresa on batean asko ikastea espero dut. Jende berria ezagutuko dut, hizkuntza eta kultura berri bat.

Zein asmo duzu etorkizunerako?

Ingeniaritza Mekanikoa ikastea gustatuko litzaidake.

Bergaran pikete informatiboa egin zuten goizean, trikitiarekin. | JOKIN BEREZIARTUA

Azken urteetako erantzunik zabalena izan zuen grebak sindikatuen esanetan

- Sindikatuak bat datoz: azken hogei urteetako garrantzitsuena izan da
- Nabarmentzekoa, inolako gertaerarik ez dela egon Debagoiena osoan

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Sindikatuek espero besteko jarraipena izan zuen atzoko greba orokorrak. Azken urteetan lehen aldiz Hego Euskal Herriko sindikatu guztiek deitutako greba izan zen eta lehen orduetatik lantegi gune nagusiak (Fagor, Arcelor Mittal ala Ulma) eta komertzioak itxita egon ziren. Baita komertzio-gune handiak ere. Esaterako, Arrasateko Eroski ala Hiper Asia hipermerkatuek ere pertsiana itxita izan zuten egun guztian zehar. "Azken urteetako grebarik jarraituena" izan dela dio LAB sindikatuko Ana Sebalek "hala konfirmatu" diotela "sindikatuko beteranoek" eta garbi geratu dela "Euskal Herriak eredu sozialago bat exijitzen" duela. Salbuespenak salbuespen, hortaz –Oñatiko banketxe bat eta Arrasateko erdiguneko komertzio bat–, "erabatekoa" izan da atxikimendua, ELAko Amagoia Lasagabasterren berbetan. Jarraipen zabalarekin batera, lasaitasuna eta bestelako nabarmentzeko moduko gertaerarik eman ez izana ere azpimarratzekoak dira. Ertzaintzak jakinarazitakoaren arabera, aipatzeko moduko gertaerarik ez zen egon Debagoienean.

"Herri mobilizazioa"

Pikete informatiboak Bergaran ibili ziren goizean informazioa banatzen eta trikitiarekin kalea girotzen, ezelako gertaera barik, Jaurlaritzak zehaztutako zerbitzu minimoengatik gertatutako "tirabira txiki" pare bat kenduta, Sebalek azaldu duenez. Arratsaldean Arrasaten zen manifestaziorako deia eta erantzun zabala izan zuen. Halaxe dio Lasagabasterrek, "grebak inoiz baino herri mobilizazio handiagoa eragin" duela. Bergaran eta Oñatin ere egin zituzten manifestazioak atzo arratsaldez. Sindikatu ez abertzaleei dagokienez, CCOOk eta UGTk ere bat egiten duten poztasunarekin eta CCOO-ko Julian Feok zehazki dio "1992-ra arte jo beharko" genukeela "halako erantzuna gogoratzeko". Sindikatu horretako kideak Oñatin lantegi baten egon ziren, 16 langile lanean eta 14 greban zituena, eta azkenean itxi egin zuten lantegia. UGTkoek ez dute Debagoieneko datu zehatzik, baina zalantzarik ez du egiten Agustin Reciok "martxoaren 29a erreferente bihurtuko" dela aurrerantzean. UGTko ordezkariak dio "orain enpresariek" dutela "ardura" baina "aurreikustekoa" dela ez dela "azken greba izango". Oro har, sindikatu guztiak datoz bat: azken urteetan egin den greba deialdirik arrakastatsuena izan da.

Aisia

Udaberriko domeka eguzkitsu baten tankera betea hartu zuten gureko kaleek eta, hain justu, askok eta askok halatsu hartu zuten eguna. Urkuluko urtegi inguruan gora eta behera zebilen jende piloa horren erakusle izan zen. Ondo prestatuta joan ziren familia eta lagun taldeak ere izan ziren. Esaterako, Ermutik 21 laguneko koadrila egon zen Urkulun. Gozamenerako ere hartu zuen batek baino gehiagok eguna.

Jendetza hiriburuetan

Jarraipen zabalak herrietako erdiguneak hustu dituen neurri berean, hiriburuak manifestazioek bete zituzten. Sindikatu guztiak bat etorri dira hiriburuetan aspaldiko manifestaziorik jendetsuenak ikusi dituztela esatean. Gureko ordezkariak, Gasteizen, Donostian eta Bilbon izan ziren atzo eguerdian.

Arrasateko Herriko plaza, hutsik, eguen eguerdian. | JON BEREZIBAR

LAB: "Erabatekoa izan da "

Amagoia Lasagabaster, ELAko ordezkariak, dio Debagoienean sekulako arrakasta izan duela grebak. "Jarraipena erabatekoa izan da, oso balorazio ona egiten dugu. Salbuespenak salbuespen, piketeek ez dute apenas lanik izan. Komertzioak izaten dira zalantzan izaten direnak, baina gaurkoan horiek ere bat egin dute grebarekin. Herri guztietan normaltasuna izan da nagusi. Azken urteetan egin den grebarik jarraituena dela esan dezakegu, beti ere, aurreko grebak ahaztu gabe. Besteekin alderatuz, gaurko grebak inoiz baino herri mobilizazio handiagoa eragin duela esango nuke, izan ere, hiriburuetako manifestazioetan sekulako jendetza batu da".

CCOO: "%90etik gorakoa"

Julian Feo CC.OO-ko Debagoieneko ordezkariak "balorazioa erabat positiboa dela" dio dudarik egiteke. "Debagoienean, jarraipena %90etik gorakoa izan da". Zehazten duenez, "azken urteetako jarraipen zabalena izan" zuen atzokoak. "Halakoren bat gogoratzeko 1992ra arte egin behar dugu atzera", hogei urte beraz. "Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate, Bergara... Herri horietan egon gara eta dena zegoen itxita. Oñatiko enpresa baten, bitxikeria moduan, 14 langilek grebaren alde egin dute eta 16 lanera etorri dira. Bestalde, Donostiako manifestazioan egon naiz eta sekulako jendetza bildu da".

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

PUB HAIZEA
arrasate
Zarugalde kalea 1

'Slow food' azoka, La Pegatina, Bizardunak eta Esne Beltza taldeak aurten Mundumiran

Maiatzaren 18tik 20rako asteburuan izango da Leintz Gatzaga eta Eskoriatza artean

T.M./M.B. | LEINTZ GATZAGA

Asteon aurkeztu dute Leintz Gatzagako udaletxean Mundumira munduko kulturen festa. Maiatzaren 18tik 20ra egingo da eta Leintz Gatzaga eta Eskoriatza izango dira kultura aniztasunaren erakusgarri bihurtuko diren herriak.

Aurten Leintz Gatzagari zegokion jaialdiaren testigua jasotzea, baina, herriaren tamaina dela eta, Eskoriatzaren laguntza logistikoa izango dute guztia borobiltzeko. Hala, Eskoriatzan egongo dira aparkalekuak, eta baita ekitaldi jendetsuenak eta gaueko eta kontzertuak ere. Egunean zeharreko ekintzak, berriz, Leintz Gatzagan egingo dira, hara egokituta. Osterantzean, eta kokapenak kokapen, aurten ere mundu osotik etorritako zapore kolore eta doinuak izango dira protagonistak. Aurrekontuari dagokionez, 93.000 euro da, iaz baino zertxobait txikiagoa

Gatzagan errepidea itxita

Leintz Gatzagan ez dago nahiko aparkaleku jaialdira joango diren bisitari guztien autoak jasotzeko. Hala, maiatzaren 19an eta 20an, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga arteko errepidea itxi eta autobus bereziak jarriko dituztela aurreratu zuten aurkezpenean jaialdiaren antolatzaileek, Mankomunitateko, Ginmusica ekoizpen etxeko eta Euskal Herria aldizkariko ordezkariek.

Horrekin batera, eta antolaketari dagokionez, jaialdiak iraungo duen egunetan egin beharreko lanetarako, herritarren laguntza eskatu dute Leintz Gatzagako Udaletik. Hiru esparrutan egin beharko dute lan boluntarioek: txosnan, garbitasunean eta zirkulazioan.

Jaialdiaren antolatzaileak, martitzeneko aurkezpenean, Gatzagan. | TXOMIN MADINA

Hainbat azoka eta musika

Aurtengo berrikuntza *slow food* azoka izango da, izen bereko filosofiarekin bat egiten duena eta Leintz Gatzagarako aproposa ikus dutena. Hala, bertako ekoizleei bultzada ematearekin batera, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harremana bultzatu nahi dute. Azoka horrekin batera, mendi eta senderismo azoka egongo dira eta baita GKEen eta artisautza azoka ere, aurreko urteetan egin izan den moduan.

Musikari dagokionez, maiatzaren 19ko gauean Esne Beltzak eta La Pegatina talde kataluniarrek kontzertua eskainiko dute Eskoriatzan eta 20an, Bizardunak taldeko mutilak egongo dira Eskoriatzan. Brasiletik, Madagaskartik eta AEBetatik etorritako musika doinuak eta dantzak ere ez dira faltako.

Umeendako gunea ere izango da, eta han, iaz bezala, Irrien Lagunak Kluba egongo da. Horrekin batera, kalejirak, kale animazioa, dantzen erakustaldiak, mendi ibilaldiak... ere ez dira faltako, eta kanpatzeko lekua ere egongo da.

Mundumira-ko kamisetak ere kaleratuk dituzte eta laster jarriko dituzte salgai.

Bakearen aldeko martxa bihar, zapatua, Arantzazura

M.B. | ARRASATE

Bihar izango da bakearen aldeko martxa Arantzazura. *Zorionekoak bakegileak* lelopean egingo dute, eta, Munilla gotzainak martxa aurkezteko asteon egindako agerraldian aurreratu duenez, "bakea izango da martxaren ardatza, duela 15 urte lehenengoz egin zenean bezala".

09:30ean abiatuko da Oñatitik –08:30ean itxiko dute bidea ibilgailuendako– eta 11:40 aldera iritsiko da Arantzazura. Bidean isiluneak gordeko dituzte, otoitz egingo dute, eta abestu ere bai. Gainera, aurten, Jon Enbeitaren bertsoak entzun ahal izango dira. Otoitzaldia 12:00etan hasiko da Arantzazun, eta, berrikuntza gisa, basilika barruan egingo da. Bukatu eta gero, eliztarrek eskatuta, 20 minutuko atsedenaldia egongo da. Martxa 12:45ean abiatuko da beherantz.

Pastoraltza gazteko kideen kasuan, Urbiako zelaian bazkalduko dute gotzainak egingo duen meza entzun eta gero. Bazkaldu ondoren, eztabaida-saioa egingo dute gotzainarekin.

Atez atekoaren kontrako sinadurak batzen ari dira Bergaran, Arrasaten eta Oñatin

Besteak beste, herri kontsulta egin dezatela eskatuko diete udalei

M.B. | ARRASATE

Bergaran helburu horrekin eratu den *Atez ate ez! 5. Edukiontziari bai! Eman hitza Herriari* taldeak dihardu zeregin horretan. Dagoeneko 3.000tik gora sinadura batu dituzte, eta astelehenean aurkeztu zituzten Udalean. Sinaduron "babesarekin" zera eskatu nahi izan diote alkateari: "Erabakirik hartu aurretik herri kontsulta egin dezala, bergararrok gure hitza eman dezagun". Eta gehitu dute: "Galderak *Atez atekoa bai ala ez?* izan beharko luke".

EAJko Udal taldeari ere helarazi diote sinadurekin batera aurkeztutako gutuna: "Oposizioko lehen alderdia denez, eta atez atekoaren aurka eta kontsulta eskaerarekin bat datozenez, martxoaren 26ko osoko bilkuran gure ekimena defenda dezaten". EAJko Udal taldeak hala egin zuen eta plataformakoen ahotsa izan zen asteleheneko osoko bilkuran. Hala, Udal gobernuari "herritarron eskaera kontuan har" zezala eskatu zion Aintzane Oiarbide EAJko bozeramaleak.Are gehiago, Oiarbidek azaldu du bere taldeak bat egin duela ekimen horrekin eta "plataformak hasitako bidea jarraitu eta lagunduko" dutela. Era berean, "etorkizunean ekintza gehiago" egingo dituztela ere aurreratu du.

Arrasaten beste 3.000

Arrasaten ere atez atekoaren kontrako sinadurak batzen dihardu plataforma batek Santa Marina eta San Andreseko hainbat tabernatan, besteak beste. Oscar Garciak, plataformako kideak esandakoaren arabera, duela hilabete inguru sortu zuten taldea eta "kalean astero" egoteko asmoa dutela ere aurreratu du. 3.000 sinadura inguru batu dituzte eta ekainera arte jarraituko dute zeregin horretan, gero udaletxean aurkezteko: "Ahal diren guztiak batuko ditugu; alderdi politikoetako ordezkariekin ere berba egingo dugu eta asmoa da ekainean Udalean atez atekoaren gainean berba egiten dutenean mozioak aurkeztea".

Garciak gehitu duenez, gaur San Andreseko Kurtzetxiki plazan egongo dira sinadurak batzen 10:00etatik 13:00etara.

Sinadura-batze horren harira Arrasateko Udal gobernuak bandoa atera du. Honela dio: "Herri ekimenak eta iritzien kaleratzea beti dira aberasgarri administrazioan gestio lanetan gabiltzanontzat, baldin eta parte-hartze hori egian oinarritzen bada. [...] Baina jendearen atxikipena jasotzeko gezurra erabiltzea ez da bidezkoa eta pertsona hauek atez ateko hondakinak biltzeko sistemaren inguruko zenbait gezur esaten aritu dira". Hiru gezur aipatzen dituzte: "Sistema hau ezarriz gero hondakinen tasa 100 euro garestituko dela; hondakinak ez dagokien egunean jaisteagatik isunak jarriko direla; eta ezarriko diren ordutegietan hondakinak jaisteko arazoak egongo direla.

Oñatin ere gaikako bilketaren alde, baina atez atekoaren kontra dagoen herritar talde batek sinadurak batzen dihardu. Azaldu dutenez sinadurak batuko dituzte osoko bilkuran atez atekoaren gaineko ebazpena eman arte.

zenbaki
aholkulariak-abokatuak

CERT ISO 9001
GARANTIA DE ALQUILER

• **Juridikoa:**
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

ZABALIK

OSKAR ELIZBURU
http://goiena.net/iritzia/

Non eta nola egin dezakegu?

Egunero, irratia entzutean berri xelebre eta kezkagarriak entzuten ditut. Notiziarioek *El Caso*-ren itxura hartu dute. Egunkarietara jo eta, han ere, berririk garrantzitsuenak kezkatzeko modukoak… Ematen du jendea nerbioak jota ipintzeko apustua egin duela norbaitek.

Euskara arloan ere horrelakoak entzuten ditugu askotan: batean EITB ikusteko lagun batzuek ipinitako antena Nafarroako gobernuak kendu egin duela; bestean euskara ikasten diharduten helduei HABEk ematen zizkien bekak kendu dizkiela; Iparraldeko ikasleek Selektibitatea ezin dutela euskaraz egin…

Baina gaurkoan baikorra izan nahi dut eta berri txar horien beste aldea erakutsiko dut. Antena ez zegoela eta, jendea bildu, dirua batu, antena erosi eta Nafarroan telebista ikusteko aukera lortu zuten. Eta nafar gehienak pozik, eta egin daitekeela argi geratu da, eta gobernuaren jarrera zikina bistan jarri dute.

"Egitean dago gakoa, euskara erabiltzean eta erabiltzen uztean"

Euskaldunon ekimena beharrezkoa da; horren arabera lortuko ditugu, edo ez, helburuak. Ez da hain zaila, Debagoienean, behintzat, egunean zehar ordu askotan euskaraz bizitzea. Egin zen ikerketa baten arabera, dauzkagun aukerak baliatuz gero, askoz gehiago erabil dezakegu. Eta hori da egin beharko genukeena, etxean euskararen transmisioa bermatu, eskoletan euskara egoki ikastea bermatu, eta gizarte esparru guztietan euskararen erabilera bultzatu. Aittitte-amamek bilobekin, gurasoek elkarrekin, lagunek koadrilakoekin, dakienak aukera gutxi daukanarekin, ez dakienak euskaltegietan… Egitean dago gakoa, euskara erabiltzean eta erabiltzen uztean. Konpromisoetako ordua da, gauzak euskaraz egiteko eta gozatzeko ordua.

Hori guztia neurri batean egiten badugu ere, nola hobetu behar dugun jakiteko euskalgintzak eta administrazioak aukera guztien berri emateko ardura daukate; eta Arrasaten, laster egingo dugu.

USTEAK USTE

ARANTZAZU EZKIBEL | aezkibel@goiena.com

Beharrezkoa da hori?

Fan zan astian txirrindularitza proba bi ikusteko aukeria izan neben eta nere buruari galdetu notzan: biharrezkua da, gaur egun oindiok be, bi neska podiumera igotia irabazliari bi muxu emutera? Nik uste dot lekuz kanpo dauela *ohitura* hori. Gehixau esango dot: irabazlia gizonezkua, alkatia gizonezkua, zinegotzixa gizonezkua, kirol elkartekuak gizonezkuak... Zertarako bi emakume? Irabazliari lore sortia emun eta bi muxu emuteko? Berba honeikin ez dot gura neskak gora igo izana zalantzan jarri, baizik eta erabakixa hartzen dauein gizonezkuei gogoeta eragittia. Benetan biharrezkua ikusten dozue? Gauza txikixetatik hasi bihar da aldaketia, nere ustez.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/

HANDIK ETA HEMENDIK

Ikasleei etxeko lanak bidaltzearen aurka daude gurasoak

Mikel Garcia
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Hamabost egunez, eskolatik bidalitako etxeko lanei muzin egitera, grebara deitu berri du Frantziako Estatuko guraso elkarte handienak, Ikasleen Gurasoen Kontseilu Federazioak (FCPE), eta blog bat sortu dute horren inguruan. Haurrei etxeko lanak bidaltzearen onura ez duela inork frogatu eta etxean laguntza jaso dezaketen eta jaso ez dezaketen haurren arteko ezberdintasuna handitzen duela argudiatu dute. Frantzian, 1956tik zirkular batek debekatu egiten du lehen hezkuntzako ikasleei idatziz egin beharreko etxeko lanak bidaltzea, baina askotan ez da betetzen. Alfie Kohn irakasleak argi du, etxeko lanak ez dira beharrezkoak eta gainera ez dira onak; hala azaldu du *The homework myth* (Etxeko lanen mitoa) liburuan. [...]

Etxeko lanen aldekoen argudioa izan ohi da independentzia, ardura, autodiziplina eta ikasketa ohiturak bultzatzen dituztela, baina Kohn ez dago horrekin ados: "Etxeko lanak oso desatseginak dira bai haurrentzat eta bai familientzat eta azkenean onurarik gabeko esfortzu huts bilakatzen dira. [...] Nire ustez, etxeko lanak dira haurraren jakin-mina amatatzeko arrazoi nagusia. Eta guk haur osoak nahi ditugu, sozialki, fisikoki eta artistikoki garatuko direnak, eta erlaxatzeko eta ume izateko ere denbora izango dutenak". Nola motibatu haurrak, orduan? Hezkuntza sistemarekin kritiko den irakasle estatubatuarraren hitzetan, norbera baino ez da gai norbere burua motibatzeko: "Gauzak ulertzeko umeak berez duen nahia loratzeko, aproposa den sare curricular bat, giro bat sortzea da egin dezakeguna, eskolan eta familian. Nire seme-alaba 'motibatzen' saiatzen banaiz, ziurrenik modu kontrolatzailean arituko naiz". Kontuak kontu, ikastetxe gehienetan ohikoak dira etxeko lanak, txikitatik. Guraso elkarteen presioek edota ikaskuntza/irakaskuntza prozesuko metodologia eta filosofia berriek egoera aldatzen duten ikusteke dago.

Klaustrofobia

Anjel Lertxundi Esnal
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Itsaspeko gerra-ontzien filmak oso klaustrofobiatsuak izaten dira. Pertsona asko espazio labur itogarrian, itsaspeko satorrak balira bezala bizi beharra, ikusten ez den etsai baten itzal luzea, kanpoan gertatzen denari buruzko informaziorik eza, itsasoaren beraren mehatxua… Bizitzaren tentsioak muturrera eramateko *habitat* egokia da itsaspeko gerra-ontzi bat. Zineak etekin ederrik atera dio aukerari.

Segurtasun nuklearrari buruzko Seuleko goi bilerak Tony Scott-en *Crimson Tide* (Marea gorria) filmean ageri den demokraziari buruzko jarduera politiko gero eta zinikoagoa ekarri dit gogora (Irak, Afganistan, Korea…).

Txetxeniako krisiaren erdian, *Alabama* itsaspeko ontzi amerikarra gerra nuklearra leherrarazteko zorian dago. Marinel batek demokraziaren izenean egingo duten izugarrikeria salatu duelarik, ontziko kapitainak erantzuten dio: "Hemen demokrazia defendatzeko gaudek, ez demokrazia aplikatzeko".

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez, 1.900 karaktere izan behar dituzte (hutsuneak barne).
GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Errauskailua Oñatin orain!

Javier Bujanda Diaz
Oñati

Behar-beharrezkoa delako, aurrerapenari bizkarra ematea egundoko arduragabekeria delako, beste leku batzuetan baldin badago guk ere merezi dugulako, bizi dugun krisi ekonomiko honetan behar-beharrezkoa delako lanpostuak sortzea eta errauskailuak sortuko dituelako, Oñati herri zoragarri hau EHko mapan kokatuko duelako behingoz, herrian bertan tokia soberan daukagulako (metro koadrotan Gipuzkoako herri handiena baikara), errauskailuari jaten emateko jendea gogotsu eta mobilizatuta dagoelako, eskutitz xume honetan sartzen ez diren beste mila arrazoirengatik...

Errauskailua Oñatin Orain plataformarentzat eman ezazu sinadura bat, denon artean posible delako usainik gabeko eta aire naturala isurtzen duen errauskailua Oñatin eraikitzea.

Zubietako biztanleek eskubidea baldin badute, guk zergatik ez? Denok eman behar dugu sinadura bat gutxi batzuek dena sinatu ez dezaten!

Ahoz ahokua

Iñaki Idigoras
Oñati

Ahoz aho dabil atez atekua. Eta atez ate bere kontrako afitxak. Pozik nau ni be herrixan sortu dan berbabidiakin. Eta agintari ohi eta barrixen papelak zela aldatu dian ikustiakin. Pozik? Tristia da ikustia zela gure komodidadia arriskuan ikusi dogunian bakarrik mugittu eta hasarratu garien. Kontrako argudixo nagusixenak:

"Deserosua da": prest nau esfortzu txiki bat egitteko. "Herrixa zatartuko dosku": gabez bakarrik egongo dia. Diseinua be hobetu leike. Garajetako pasiluetan ipini leike. Zergatik ez konpostadora *komunitarixuak*? "Gure barri emuten dau": baitta Eroskiko kajan pasaittiak be. Banketxetako langiliek ez al dakixei diruen barri? Bildur izan ezkero, txikitu eta kitto. "Eta Donostian ez?": ados. Baina geuk be ez dogu ba gura Donostiako TAOrik, ez eta hango txikituen preziorik. Hara komeni xakunian bakarrik begiraketia be... "Zergatik ez xau Bilduk herrixari galdeketan?": eurak jakingo daue. Erosotasun argudixo soilak irabaziko ote dauen bildurra? Ezin uka, Oñatin, behintzat, informaziñua jaso eta parte hartzeko sekula baino aukera gehixau izan dittugula.

Kontrako argumentuek "zergatik" galderiari erantzuten xaue gehixenbat: justifikaziñuak. Aldekuek, berriz, "zertarako"-ri: helburuak. Nik neuk nahixau justifikaziñotan jausi baiño, helburuak lortzeko bidia egittia. Proposamenen kontra egin biharrean, egin deigun helburuen alde. Kasu honetan, ingurumenan alde; ez ditzagun seme-alabak geure gehiegikerixekin hipotekatu.

Emun daixogun aukera bat sistema honi: zenbakittan ez dako parekorik. Izan gaittezen behingoz alemanak baino aurrerakoixau. Bai, bada pozik egotekua.

Urte batzuk badia, Laixan euskera elkartian nenbilela, kritika egin nostala Jonek: "Euskerian alde egitteko jente eta diru asko xauk, eta ingurumenerako inor gutxi". Jon, etorri dok garaixa. Milesker, hiri, hilako, ZZ... gure kontzientziak astinketiarren.

Atez atekua ez da helburua, bidia baino. Behartuta bada be, akaso bere onena: danok apur bat eginaz asko lortuko dogula.

Mirentxin taldea: maitasunez dispertsioa apurtzen

Iban Martinez
Oñati

Gutun honen bidez, Oñatiko lagun talde batek (momentuz 20 bat lagunekin osatua) hartu dugun erabakiaren berri eman nahi dizuegu herritar eta komunikabideei.

Euskal Herriko preso politikoen sakabanaketaren ondorioz, presoen senide nahiz lagunek pairatzen duten zeharkako kaltea ikusita, Mirentxin taldeak dispertsio politika honek pertsonengan dituen ondorioak gutxitu eta haiei sufrimendu hau ahal den neurrian goxatu nahian, konpromiso hauek hartu ditugu. Hilero asteburu batez (bolondres gehiagorekin asteburu gehiago kubritzea dugu helburu), bi taldekidek gidari lanak egingo ditugu Lyon-era (Frantzia), bertan dauden zortzi presoak bisitatu nahi dituzten senide eta lagunen zerbitzura. 1.000 kilometro, 12 ordu inguru errepidean, bisita egin, eta buelta. Beste 1.000 kilometro, beste 12 ordu, eta errepideak dituen arriskuak berriz.

Mirentxin gidariok hartuko dugu furgonetarekin gidari lanak egitearen ardura, gure helburu bakarra senitarteko zein lagunak ahal den erosoen joatea izanik. Bidaia gogorrak dira, arriskuz eta urduritasunez beteriko bidaiak, baina baita ilusioz, elkartasunez eta maitasunez beteriko bidaiak ere. Guztira, egun eta erdi errepidean, 2.000 kilometrotik gora, eta kostu ekonomiko itzela (peajeak, gasolioa, motela, kafeak...). Astero-astero errepikatzen den errutina garestia, senitarteko eta lagunak diren haiek bisitatzeko.

Mirentxin taldeak Estatu Espainiar eta Frantsesak preso eta senideen aurka erabiltzen duten mendeku-politika gogor salatu nahi du, eta gure elkartasuna adierazi nahi diegu dispertsioaren ondorioak pairatzen dituzten guztiei.

Euskal preso politikoak Euskal Herrian egotea oinarrizko eskubidea delako...

1-Euskal presoak Euskal Herrira. / 2-Gaixo larriak etxera. / 3-Kondenaren 3/4ak beteta dituztenak kalera. / 4-Parot Doktrinarekin bukatu.

Dirulaguntzekin lagundu edo zuzenean gidari bezala taldean parte hartu nahi duzuenok, jar zaitezte gurekin harremanetan. Aurrez mila esker. Iban (679 52 64 22). Ibon (692 71 47 02).

Zergatik ez?

Maialen Belastegi, Alazne Jauregi eta Ane Lizarralde
Antzuola

Zergatik ezetz atez atekoari?

Hasiera batean geu ere zalantzakor agertu ginen udal berriaren proiektu honen aurrean, ez baikenuen honek funtzionatuko zukeenik sinesten. Baina hilabeteak pasa ahala, gure zalantzak haizeak udazkenean hostoak daramatzan bezala joan ziren, onurak nabariak zirela konturatu ginen eta benetan eraginkorra zela.

Lehen %32 soilik birziklatzen genuen eta orain, berriz, %90 birziklatzeraino iritsi gara. Ez al du merezi erronka hau onartzea? Honengatik guztiagatik, zuen aurreiritziak alde batera utzi eta mundu garbiago baten alde borroka egin dezazuen eskatzen dizuegu. Izan ere, beti esan ohi da mundua salbatu behar dugula, mundu osasuntsu baten alde egin behar dugula... Eta gure galdera da: zer demontre pasatzen da etengabe mundua suntsitzen eta hau konpontzeko ezer egiten ez dutenen burutik? "Geuk ez, besteek egin dezatela".

Azken hilabeteotan, Debagoienean ez da beste hizketagairik. Esku artean okerreko informazioa dutela mintzo dira honetaz. Aipamen berezia egin nahi genieke sinadurak batzen dabiltzan hainbat herritako biztanleei, ez baitugu uste honetaz hitz egiteko aproposenak direnik. Honetaz gain, nork nahi du egongelako leihotik erraustegiko tximinia ikusi? Nork kalera irten, ke hori arnastu eta kirats hori sentitu?

Bistan dago arazoa, eta gaur egun atez atekoa da egokien doakion alternatiba. Beraz, ez gaitezen itsutu eta egin dezagun apustu atez atekoaren alde. Amaitzeko, zorionak Antzuolari eta honekin aurrera jarraitzen duten gainerako herri guztiei.

Lourdes Idoiagari

Jose Mari Zugasti
(Oñatiko ezker abertzalea)
Oñati

Gezurretan dabilena ez da oso urrun iristen.

2012ko martxoaren 16ko GOIENA astekarian honakoa idatzi zenuen hitzez hitz: "Galdeketari buruz berriz esan behar da bosgarren edukiontziaren aldeko erabakia hartu zeneko plenoan, Zero Zabor plataformaren eta ezker abertzalea/Bilduren aldetik, behin eta berriz eskatu zitzaigula galdeketa egiteko".

Lehenik eta behin, esango nizuke ezker abertzalea eta Bildu ez direla berdinak. Ezker abertzalekoak diren batzuek izan zuten aukera Bildu koalizio elektoralean aurkezteko, baina beste askok, nahita ere, ezin izan genuen koalizioko partaide izan. Oraindik ere hautatuak izateko eskubidea urratua daukagu.

Bosgarren edukiontziaren aldeko erabakia hartu zeneko plenoa luzea eta eztabaidatsua izan zen. Zehazki, zaborraren inguruko eztabaida guztiak 62 minutu iraun zuen. Zorionez, disko batean grabaturik, plenoan hitz egin zena eskuratzeko zortea izan dugu eta gezurretan zabiltzala demostra dezakegu:

1-Ezker abertzaleari zegozkion lau aulkietan ez zen inor eseri. Hau da, ezker abertzaleko kideak ez zeuden presente osoko bilkuran. Beraz, ez zuten hitz egiterik eta are gutxiago galdeketa behin eta berriz eskatzerik.

2-Oñatiko Zero Zaborreko kideek hitza hartzen dutenean, ez dute momentu baten ere *galdeketa* hitza erabiltzen, prozesu parte-hartzaileaz mintzatzen dira. Zer egin behar den prozesu parte-hartzaile bat martxan jartzeko galdetzen dute. Bosgarren edukiontziaren aldeko hautua egiteko aski izan baitzitzaizuen enpresa pribatu batek 384 oñatiarri eginiko inkesta edo galdeketa. Galdetutako 2/3ak bosgarren kontenedorearen alde egotea Oñatiko herritarren gehiengoa bosgarren kontenedorearen alde egotea zela erabaki baitzenuten. Baina berriz diot, inoiz ere ez zuten *galdeketa* hitza erabili.

Beraz, Oñatiko ezker abertzalearen izenean, errektifikazio publikoa egitea eta gezurretan ibiltzearen onarpena eskatzen dizugu. Beste batzuen gardentasun falta salatu baino lehen, norberarena demostratu behar da. Orain daukazu aukera.

EAJren erantzuna herriari kontsulta egitearen kontra dauden alderdiei

Juan Karlos Garitano, Maria Ubarretxena, Ibon Arrupe eta Juan Ramon Mendieta
Arrasate

"Arrasaten atez ateko sistema inplantatzearen alde edo kontra zaude? Bai edo Ez".

Bilduren ezetzari hurrengoa esan nahi diogu:

1-Proposatzen duzuen zabor bilketa sistema ulertzen dugu ez dela erabaki politiko bat izan behar; izan ere, aldaketa honegatik afektatutakoak biztanlego guztia gara; ipin, dezagun, beraz, biztanlegoa aurretik!

2-Beti exijitu duzue eta kontsultaren alde egon zarete, eta orain? Zuen ezezkoarekin arrasatearron erabaki demokratikoari beldurra diozuela ematen du. Zergatik demokraziari beldur hori?

3-Beti egon zarete erabakitzeko eskubidearen alde, eta orain? Zuen ezezkoarekin ez zarete koherenteak orain arte defendatu duzuenarekin eta hau larria da; izan ere, herriak akatsak barkatzen ditu, baina ez koherentzia faltak.

4-Atez ateko sistema inposatuko duzue zuen gehiengo absolutua erabiliaz. Zer gertatuko da gehiengoa galtzen baduzue? Edo galtzen duzuenean? Ba al daukagu hainbesteko dirurik horrela ibiltzeko?

PSOEri zera esan nahi diogu:

1-Herrialde demokratikoetan milaka kontsulta trasladatzen dira biztanlegora; izan ere, biztanlegoaren nahia diferentzia politikoen gainetik egon behar da. Orduan, zergatik beldur hori? Ez al dauka herriak erabakitzeko eskubidea, batez ere, familia bakoitza zuzenki afektatuko dion gai baten inguruan?

2-Ez baduzue nahi herriak erabakitzea zein den zaborra biltzeko modurik egokiena, zein da arrazoia, ez duzuela defendatzen herriak bere erabaki propioak hartzea?

Javier Martinez Gil | Hidrogeologoa

"Gaur egungo gure ibaiak hilotzak dira; hilotz zikinak, gainera, kloakak"

- Hidrogeologoa kritiko azaldu da zibilizazioaz, gobernuez, erakundeez, uraren kudeaketaz
- Gizatasun handiagoa aldarrikatzen du Uraren Kultura Berria bultzatzean

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Ingurumen jardunaldiak antolatu berri dituzte Bergaran, eta, horien artean, berbaldi bat, Javier Martinez Gil hidrogeologoarekin. Ibaiak eta Uraren Kultura Berria gaia hartuta, ibaien egoeraren eta uraren arazoaren gainean jardun du. Kritiko azaldu da zibilizazioaz, gobernuez, erakundeez. Gizatasun handiagoa aldarrikatu du datorrenaren aurrean.

Zer da Uraren Kultura Berria?

Uraren arazoaz jabetu behar dugu eta ulertu behar dugu zertaz dihardugun. Izan ere, begi batekin ikusi edo beste batekin ikusi, ezberdin uler daiteke eta testuinguru batean edo bestean ere ezberdina izan daiteke. Baina, gure testuinguru hurbilenean, zera izango litzateke: teknologiek baliatuta, ura ordaindu daitekeen neurrian eta ura botere gisa erabil daitekeen neurrian, uraren nahiak eta erreken suntsiketak ez daukala mugarik, ase ezina delako botere eta diru nahia. Horrek garamatza atzera begiratzera eta jabetzera duela 60 urte gure errekak gaur egungoekiko oso bestelakoak zirela. Gaur egungo errekak hilotzak dira, hilotz zikinak, kloakak.

Ibaiak garbiago doazela orain, araztegiengatik eta kolektoreengatik?

Ur industrialen garbiketa hutsa da. Ikusi besterik ez dago errekak ur gutxiagorekin doazela gaur egun, erreka ertzak ez direla lehengoak, kanal bihurtuta daudela asko eta asko... Lehen, errekak, bilgune, aisialdigune ziren.

Nora garamatza horrek?

Bide honetatik, ibaiak ia emaririk barik geratuko dira, emari ekologiko deitzen diogunarekin, ur hari fin eta txikia eroango dute; ur industriala, araztegietan garbitutakoa, ez ur naturala. Balio emozionalik bako ibaiak izango dira. Artelan baten kopiak baliorik ez daukan moduan, araztegietan garbitutako urak daroatzan errekak ere ez dauka balio emozionalik, ez dauka arimarik.

Oso ezkor ikusten zaitut.

Gure erreken erabateko suntsipenera, holokaustora, garamatza jarrera horrek. Norbaitek esango du: "Horren inportantea da hori?". Beno, joan gaitezke musika klasikoa suntsitzen eta ailegatuko da momentu bat desagertuko dena, baina bizitzak aurrera jarraituko du... Gizateria, bide horretatik, inboluziora doa, ez doa aurrera.

Javier Martinez Gil hidrogeologoak berbaldia eskaini zuen joan zen astean Bergaran, Uraren Kultura Berriaz. | JOSETXO ARANTZABAL

Errekek balio materiala ere badute.

Bai, hala da eta horixe da arazoa. Truke txanpon moduan erabiltzen da ura, botereak darabil. Eta geratzen zaigun apurra, zaindu egin behar dugu. Hortaz, kultura moduan hartzen ez dugun bitartean, ibaiak txikitzen jarraituko dugu. Bilbo ezin dezakegu ulertu Nerbioi barik, edo Gasteiz Zadorra barik, edo Sevilla Guadalquivir barik, edo Zaragoza Ebro barik... Azkeneko urteotan, ibaiekiko suntsiketa kultura bultzatu dugu eta hori aldatu egin behar dugu: balio emozionalei, eskaintza ludikoari, identitateari, ondasunari..., gauza horiei, eman behar diegu garrantzia. Ibaiek funtzio bat betetzen dute naturan. Urtegiak beharrezkoak dira, baina ez dute areak pasatzen uzten eta itsasora doazenean arearik eta limorik apenas dute ibaiek; ondorioz, hondartzak desagertu egiten dira, hondar barik geratzen dira eta obra garestiak egin behar dira urtero, areari eusteko. Gizakiak beti izan du harreman zuzena ibaiekin, urarekin...

"Araztegian garbitutako ura daroan errekak ez du balio emozionalik"

Erakundeek ez diote baliorik ematen Uraren Kultura Berriari?

Ez, argi dago hori. Ez dute ulertzen eta ez dute ulertu nahi. Botereari eusteko, interes jakin batzuen aurrean amore eman behar dute gobernuek. Eta, esaterako, proiektu hidrauliko handien bultzagileen aurrean autonomia txikia dute gobernuek. Lehiakortasuna da kultura dominantea eta gizatasuna, elkartasuna eta halakoak bigarren maila batean daude.

Trasbaseen eta urtegien politikek badute alternatibarik?

Sistema muturrera eroaten gabiltza. Eman dezakeena baino erregadio sistema gehiago jartzen gabiltza eta hori ezinezkoa da. Ahal den guztia ureztatzen dugu eta lehentasunak ezarri behar dugu. Izan ere, sikatea errealitate bat da Iberiar penintsulan. Halere, egarriz ez da inoiz inor hilko hemen. Ura ondasun mugatua da, bai, baina ur larregi eta behar ez denerako erabiltzen dugulako. Egoeratara egokitu behar dugu eta ez Tajotik Segurara moduko ibai trasbaseak egin. Obra kolosala, urtean 1.000 hektometro eroateko diseinatuta, baina, benetan, 300 hektometro darabilena... Sinesgaitza da, baina gertatzen da uraren gaineko politikekin, ze negozioa besterik ez dute helburu. Negozio goseak mugitzen dituzte obra erraldoi horiek eta uraren kudeaketa negargarria da.

Zein da irtenbidea?

Gelditzea! Hau arazo handi baten zati bat da. Arazoa da krisi handi batean murgilduta dagoela zibilizazioa eta guztiari eragiten dio krisi horrek. Aurrerapena, garapena, ongizatea bezalako kontzeptuak berrasmatu behar ditugu, aldatu behar ditugu. Hemen aurrerapena deitzen diogu bandalismoari. Arazo bat konpontzeko, lehenbizi, kontzientzia kolektiboa eduki behar dugu. Eta une honetan ez daukagu kontzientzia kolektiborik, ez delako interesatzen. Norberak, bere eragin esparruan lanean jardun behar du, bere kontzientziak eskatzen dionaren arabera.

"Negozio goseak mugitzen dituzte obra hidrologiko erraldoiek"

Oso polemikoak izan dira hainbat urtegi: Itoitzekoa, Iesakoaren handitzea... Zer deritzozu horien gainean?

Beste astakeria bat. Izan ere, urtegi hori, ustez, Nafarroa hegoaldeko nekazaritza lurrak ureztatzeko egin zen eta nekazariek erabiltzen ez dutenez ur hori, Nafarroako Gobernuak lege bat atera behar izan du kanaleko ura erabiltzea derrigortuz. Nork irabazten duen hortik? Urtegia eta ubidea eraiki dutenek. Zer galdu den? Bailara eta ur eder bat, Itoitz inguru zoragarria.

400 MENU ETA ZINERAKO 100 SARRERA

Parte har ezazu 8 kontsumizio biltzen dituzten 50 txartelen eta zinerako 2 sarreren zozketan.

WWW.CENTROCOMERCIALGORBEIA.COM

Zer egin behar da parte hartzeko?

1. Egin 10€-ko edo gehiagoko erosketa bat Gorbeia Merkataritza Parkeko edozein establezimendutan sustapenak dirauen bitartean.
2. Sartu www.centrocomercialgorbeia.com-en eta eman izena.

Zure datu pertsonalak (izena, abizenak, helbidea, eta abar) eta erosketa-tiketari dagozkion datuak biltzen dituen formulario bat bete beharko duzu, eta egindakoan, maiatzaren 2ko zozketan parte hartu ahalko duzu.

IMAGEN21

Ikus Oinarri osoak honako web-orri honetan:
www.centrocomercialgorbeia.com

GORBEIA
10 URTE AURREZTEN

Sustapenak martxoaren 30etik apirilaren 30era iraungo du

Carrefour DECATHLON Norauto BRICO DEPOT merkal YELMO DIGITAL 3D MAX CIMER SAMIRA CÓCTEL CORTEFIEL Mr. Wok

HERRIAK

Bedoñabeko irakasleak goian, ezkerrean; eskuman, Musakolako irakasleak; behean, Erguingoak. | ARRASATE HERRI ESKOLA

ESANAK

"Inportanteena, gurasoek gure alde egin zuten apustua"

ARANTXA MENDAROSKETA
ZUZENDARIA 2002TIK 2005ERA

"0-2 tartea martxan jartzea garrantzitsua izan zen"

AGURTZANE BARRUTIA
ZUZENDARIA 2005ETIK 2008RA

"Hezkuntza kalitatea hobetzea da gure erronka"

JOSUNE ETXABE
ZUZENDARIA 2008TIK 2014RA

Hiru zuzendariak. | MIRYAM GALILEA

ARRASATE

Lan fineko hamar urte

- Lortutako hobekuntzek beldurrak eta defentsak eraman zituzten
- Ikasleak zoriontsu eta arrakastatsu izatea da Herri Eskolaren helburua
- Egindako azken berrikuntzak Aste Santu ondoren igarriko dira

MIRYAM GALILEA | ARRASATE

Orain dela hamar urte hiru eskola publiko zeuden Arrasaten: Musakola, Erguin eta Bedoñabe. Bakoitza lerro bakarrekoa zelarik, baina, gurasoei eskaintza hobea emateko helburuarekin, bakarra egitea erabaki zuten, eta Arrasateko Herri Eskola sortu.

Esparru desberdinetan lan handia egin behar izan zen horretarako: administrazioarekin, delegaritza... eta, honekin guztiarekin, Mari Karmen Arberazen laguntza jaso zuten, gauzak aurrera eraman zituen hark. Antolaketa eta pedagogia ere gai garrantzitsuak izan ziren: "Eskoletako dinamikak berdintsuak ziren, baina desberdintasunak ere bagenituen eta dena adostu behar izan genuen. Honetarako, Luis Mari Lizandegi unibertsitateko irakasleari laguntza eskatu genion", azaltzen du Arantxa Mendarosketak, Herri Eskolako lehenengo zuzendariak. Haren aholkuak jaso eta denon artean hainbat gai adostu zituzten.

"Irakasleok ia astero biltzen ginen, delegatuekin bilerak antolatzen genituen eta jendearen iritzia jasotzen ere saiatu ginen", dio Mendarosketak. "Baina inportanteenak gurasoak izan ziren, haiei esker eta gure alde egin zuten apustuagatik aurrera atera baitzen Arrasate Herri Eskola".

Geroztik, hamar urte pasatu dira eta atzera begira ideia ona izan zela aitortzen dute Herri Eskolako zuzendariek. "Lehenengo urteetan beldurrak eta defentsak egon ziren, edozein aldaketa gertatzen denean moduan, baina, gauzak hobera zihoazela ikusten hasi zenean, dena lasaitu zen", dio Agurtzane Barrutiak, zuzendari ohiak.

Eskaintza zabaltzea

Urte hauetan aldaketa txiki eta handiak egon dira Herri Eskolan, eta garrantzitsuetakoa Goieskolak orain dela urte batzuk bultzatu zuen proiektua izan zen, 0-2 urte bitarteko umeentzako hezkuntza eskaintza zabalduta. "Goieskolan sortu zen premia, eta haurreskolako 0-2 tartea martxan jarri zuten. Ordura arte ez zegoen halakorik gure eskoletan eta garrantzi handiko lana izan zen", azaltzen du Barrutiak.

Bestalde, lan eta berrikuntza desberdinak egin dituzte hasieratik Herri Eskolan, eta oraindik ere horiekin jarraitzen dute, poliki-poliki eskola berrituta. Gaur egun, ikasle kopuruaren gorakada dela-eta, ikastetxearen azpiegituran beste antolaketa baten beharra ikusten dute Herri Eskolakoek, eta, horretarako, delegaritzarekin eta Udalarekin lanean ari dira. "Bien laguntza beharrezkoa genuen, eta antolaketa egin zen, bai pedagogikoki eta baita azpiegiturari dagokionez. Tarte horretan lanak datatu genituen: batzuk epe laburrekoak, ertainekoak eta luzekoak", dio Josune Etxabe zuzendariak.

Hasieran, Musakolako eraikinaren azpiegitura egokitu eta berrantolatu zuten, eta jangela zerbitzua lehenengo aldiz eskaini zuten; aldi berean, haurreskola jarri zuten... Azkeneko berrikuntzen inguruan, Erguingo eraikinean, Lehen Hezkuntzarako sei gela berri egin dituzte, soinketa eremua eta aterpe bat, eta Aste Santuan egingo dute lekualdaketa orain arte zeuden aurrefabrikatutako gelak kenduta. Aurrera begira, Musakolan eraikin berri bat egiteako proiektua dago, Erguingo eraikina arinduta eta zerbitzu gehiago eskainta. "Tartean krisi garaia tokatu zaigu, baina gure eginkizuna hori lortzeko lanean jarraitzea da", dio Josune Etxabek.

Gaur egungo Herri Eskolako erronka garrantzitsuena hezkuntza kalitatea hobetzea da, formakuntza eta proiektuen lanketa ahaztu gabe. "Ikasleen ongizate emozional eta akademikoari begira, helburua bizitzan zoriontsu eta akademikoki arrakastatsu izatea da", dio Etxabek.

Orain arteko berrikuntzak

2005-06 Musakola eraikineko obrak hasi ziren. Barrualdea guztiz berritu eta antolaketa berria egin zuten.

2005-06 Musakolako lehenengo solairuan jangela zerbitzua eta haurreskola jarri zituzten; ordura arte ez zeuden zerbitzu horiek.

2011-12 Erguingo eraikinean sei gela berri egin dituzte; aurrefabrikatutako gelak kendu egingo dituzte.

2011-12 Erguingo eraikinean soinketa eremua eta aterpe berria eraiki dituzte.

2012 Udalak Erguingo eraikina margotu eta txukunduko du, patioak egokitu, eta berdegunea behar bezala jarriko du.

Goieskolak ere 10 urte betetzen ditu

Badira hamar urte Goieskola sortu zela, Debagoieneko Euskal Eskola Publikoen proiektu bateratua. Hain zuzen, bailarako eskola publikoak batu (hamabost ikastetxe) eta guztiek batera arazoak konpondu eta helburuak bateratzen dituen proiektua da; bada, proiektu horren ezaugarri nagusia aniztasuna da. Momentu honetan, Goieskola proiektuak 2.500 familia, 3.000 ikasle, 425 irakasle eta irakaskuntzaz kanpoko 65 langile hartzen ditu bere baitan.

Atez ateko sistema eztabaida iturri nagusia osokoan

Ekaineko osokoan onartzekoa den arren, mozioen bidez aurka egiten ari dira EAJ eta PSE-EE

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hiri hondakinak kudeatzeko atez ateko sistema ekainean onartzekoa bada ere, azken hilabeteetako osoko bilkuretan eztabaidagai nagusia ari da izaten. Martitzeneko ezohikoan ere talde sozialistak mozio berri bat aurkeztu zuen, baita jeltzaleek ere.

EAJ eta PSE-EE, haserre

Jeltzaleen bozeramaile Juan Karlos Garitanok biztanleria osoa kontuan ez hartzea eta herri kontsulta ez egitea leporatu zion Bilduri: "Beti exijitu duzue eta kontsultaren alde egon zarete. Eta orain? Zuen ezezkoarekin arrasatearron erabaki demokratikoari beldurra diozuela ematen du. Zergatik demokraziari beldur hori?". Mozioak ez zuen aurrera egin: EAJk alde (4) eta Bildu, PSE-EE eta Aralarrek aurka bozkatu zuten (15).Talde sozialistak, bestalde, sistema "zikina, itsusia, garestia, deserosoa eta ez-eraginkorra" dela esateaz gain, alkatearen izenean etxez etxe zabaldutako bandoa salatu zuten: "Bandoa premiazko informazioa herritarrei helarazteko Udalaren bitartekoa da, eta ez udal gobernuaren propaganda egiteko bidea. Alkateak azalpenak eman beharko lituzke eta barkamena eskatu inongo frogarik gabe gezurra esan dutela leporatu dion herri-plataformari", adierazi zuen Aritz Arrieta bozeramaileak. Sozialisten mozioa ere ez zen onartu: PSE-EE eta EAJk alde bozkatu zuten (8) eta Bildu eta Aralarrek kontra (11).

Bildu, "gezurrei" erantzuten

Arrietaren adierazpenei erantzuteko Iraia Sola Bilduko bozeramaileak hartu zuen hitza: "Azkenaldian sinadura bilketa kanpaina bat jarri omen da martxan, atez-ateko bilketa sistemaren aurka egiteko. Bilketa horiek zilegiak eta oso interesgarriak dira baldin eta egietan oinarritzen badira. Gezurren bidez aritu dira ateaz atekoaren gainean berbetan, ekimen horrek izan zezakeen sinesgarritasuna galduz".

Hala, atez atekoaren gainean esan diren "gezurrei" atalez atal erantzun zion Solak; besteak beste, edukiontziak kenduko direla ukatu zuen: "Erropen, olioaren, beiraren eta agian, paperarena ez direlako desagertuko. Hori guztia herritarrek erabakiko dute". Azkenik, "dagokion informazioa dagokion erritmoan" emango dutela ziurtatu zuen zinegotziak.

ESANAK

"Sinadura bilketak zilegiak eta oso interesgarriak dira, egietan oinarritzen badira"

IRAIA SOLA | BILDUKO BOZERAMAILEA

San Juan jaietarako parte hartzea bultzatu gura du Udalak

San Juan jaiak antolatzeko prozesu parte hartzaile bat abiatuko du Udalak. Helburua da arrasatearrak garaiz elkartu eta herritar guztien artean antolatzea "denondako erakargarria" izango den egitarau bat. Prozesu horren berri emateko prentsaurrekoa emango dute gaur Kepa Urteaga kultura zinegotziak eta Jon Garai kultura teknikariak. Zaldibarko pilotaleku ondoko parkean izango da, 10:00etan.

Era berean, Udalak kaleko salmenta lizentziak emateko prozedura arautu du. Izena emateko epea apirilaren 10ean hasi eta maiatzaren 14an bukatuko da.

Ludoteka ibiltariaren azken saioa bihar San Andres auzoan

Txatxilipurdiren ludoteka ibiltariaren azken saioa egingo dute bihar San Andresen. Bedoñabe herri eskolan elkartuko dira: 10:30etik 12:30era 3 eta 12 urte bitarteko haurrendako eta 12:30etik 13:30era 0 urtetik 8 urte artekoendako; azken horiek helduen laguntzaz joan beharko dira. Sormena landuko dute, denetariko materialekin.

Antolatzaileek gurasoek ere parte hartzea gura dute, ondo pasatzeaz gain, euren seme-alaben eredu eta animatzaile izan daitezen. Biharko saioaren ostean, datorren otsailera arte agur esango diote ludoteka ibiltariari.

IBON IRASTORTZA

Besaideko 45 lagun Bizkaiko Biraren beste etapa baten

Besaide mendizale elkarteak antolatuta irteera egin zuten 45 lagunek hilaren 25ean. Eguraldi ona lagun, Bizkaiko biraren zazpigarren etapa egin zuten. 09:00etan hasi zuten ibilbidea: lehenengo, Mello tontorrera igo ziren eta handik Kantabria eta Euskadi arteko mugan dagoen Alto de las Muñecaseraino joan ziren. Handik, Alen eta Betaio tontorren artean pasa ostean, Gordon auzora iritsi ziren. Amaitzeko, Trutzio bisitatu zuten.

Richi: peluka eta protesi kapilarrak modu erreserbatu eta pertsonalizatuan

Elgoibarren jaioa, duela 16 urte heldu zen Arrate Manzisidor Arrasatera. 33 urteko ibilbidea du eta, besteak beste, peluketan eta protesi kapilarretan aholkularia da.

Arrate Manzisidor, ileorde batzuen ereduak ondoan dituela.

> Jende asko etortzen da ile-apaindegira peluka eske edo protesi kapilarrak jartzera, baina oraindik askok ez dute horren berri; etorri informatzera, konpromiso barik.

Ohiko ile apaindegi zerbitzuaz gain, Richi ile apaindegiko Arrate Manzisidor peluketan eta protesi kapilarrak jartzen espezializatu da. Duela 16 urte heldu zen Arrasatera, Elgoibarren hainbat urtez ile-apaintzaile lanetan ibili eta gero. Gurera heldu eta ondoen egiten dakienarekin jarraitu du: Arrasaten 12 urte daramatza lan horretan.

Horrez aparte, ile faltari aurre egiteko formula ezberdinak –arazoaren iturria edozein delarik– probatzearen aldeko apustua hartu zuen duela zenbait urte: "Orain bertan pelukak, protesi kapilarrak eta edozein gaixotasun edo alergiak eragindako ile faltak konpontzen espezializatu gara". Eskaera badagoela dio: "Jende asko etortzen da peluka eske edo protesi kapilarrak jartzera baina oraindik askok ez dakite; etorri informatzera".

Etxerako zerbitzua

Ile apaindegian bertan eskaintzen du zerbitzua, diskrezio handiz: "Gela erreserbatu bat daukat eta, beraz, zerbitzu pertsonalizatua eta pribatua eskaintzen dut". Gainera, etxerako zerbitzua ere eskaintzen du, eta deiren bat jasoz gero, ospitalera ere egiten ditu bisitak, zerbitzua han bertan eskaintzeko. Hori guztia gutxi balitz, peluken banaketa sare bat ere jarri du martxan: "Beste ile apaintzaileren batek pelukak erosteko interesa badu jar daitezela nirekin harremanetan, gustu handiz azalduko diet-eta mundu horrek nola funtzionatzen duen".

RICHI
ile-apaindegia eta ileordeak

IRUDI, PELUKA ETA ILEORDEETAN AHOLKULARIA

Zarugalde kalea 5
(sarrera baita Otalora kaletik ere)
Arrasate
Tel.: 943 79 10 06
www.posticeria-richi.com

Aste Santu ostean, Kooltur Ostegunak indarrez datoz

X.U. | ARRASATE

Apirileko lehenengo eguenean Kooltur Ostegunak Ekimenak atseden hartuko du, oporrak tarteko, baina hurrengo astean indarrez itzultzeko hartuko dute atseden.

Hala, apirilaren 12an Izate izeneko taldea izango da gaztetxean; Iparraldetik datoz, post-harcore musika eskaintzarekin.

19an, 'Bizkaiko koplak' lana

Apirilaren 19an, berriz, Kepa Junkera eta Xabier Amuriza izango ditugu Arrasaten bisitan, *Bizkaiko Koplak* izeneko proiektua erakustera. Lan horretan Amurizak eta Junkerak literatura era musika uztartzen dituzte; Bizkaian edo bizkaierazko euskalkian jasotako antzinako koplak batu dituzte. Antzinakotasun horrek, kasu batzuetan, hiru-lau mende atzerantz jo dezake. Gehienean, XIX. mendean zehar sortuak, baita, batzuetan, XX. mendearen hasiera inguruan ere. Generoaren barruan, azpisail ezberdinak daude: gabonetakoak, erromeriakoak...

Azkenik, apirilaren 26an AEBtatik etorritako punk-rocka egongo da entzungai, Hudson Falcons taldeak emanaldia egingo du-eta. Orain arte moduan, kontzertu horietan guztietan prezioa 5 eurokoa izango da, eta emanaldi guztiak 22:00etan hasiko dituzte, puntuan.

Filipinetako gatazkaren gaineko berbaldia

Aspaldiko urteotan Filipinetan gaztazka politiko, sozial eta armatua bizi dute, eta gaztazka horren gaineko berbaldia emango dute apirilaren 3an, martitzena, Kulturateko areto nagusian (18:30). Hitzaldia ematera Filipinetako Fronte Demokratikoko ordezkari bat etorriko da.

2010eko derbian Loiti; Arrasatekoak min hartu zuen duela 15 egun. | GOIENA

Mondrak derbia baino askoz gehiago du jokoan bihar

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Azken urteetan Mondra ez da derbi baten atarian halako puntu beharrean egon (16:30, Mojategi). Arrasatekoek asko dute jokoan, geratzen diren zortzi partiduetatik seguruenik sei garaipen beharko dituztelako kategoriari eusteko: "Ulergarria da jendeak pentsatzea amore eman dugula, baina ezta gutxiago ere. Hurrengo bi partiduak etxean ditugu, Aloñaren kontrakoa eta Hondarribiaren kontra atzeratu zena. Eta bi partidu horiek irabazten baditugu Aste Santu ostean gauzak beste modu batean ikusiko ditugu", adierazi du Jon Muruamendiaraz entrenatzaileak.

Oñatiko taldea izango da bihar Mojategin: "Eurak baino puntu behar handiagoa dugu, eta azken partiduetan bolada txarrean daude. Baina noski, ezin gara konfiantza larregirekin zelairatu, partidu zaila izango delako". Beste aulkian egongo den Andoni Azkargortak onartu digu ez daudela onenean: "Sailkapeneko azken postura jaitsi ginenean izandako erreakzioa ordaintzen ari gara. Hamabost partidutan gure onena eman behar izan genuen zulotik irteteko, eta espero genuen bolada txar hau. Fisikoki behera egin dugu, eta jokoan ere igarri dugu hori. Arrasatekoekin dugun harremanagatik, eta ikusita zelan dauden, ez nago zapatuko partidua iristeko amorratzen, baina guk garaipena behar dugu Aste Santu ostean larri ez ibiltzeko".

Aste Santuko oporraldiak on egingo die bi taldeei, baina lanak geratzen dira aurretik.

ESANAK

"Ez dugu amore eman, bi garaipenekin egoera asko alda daiteke"

JON MURUAMENDIARAZ | MONDRA

ESANAK

"Garaipena behar dugu Aste Santu ostean lasai ibiltzeko"

ANDONI AZKARGORTA | ALOÑA

ZALDIBAR

EMAITZAK (KOPA)

Abokajarro-Lasagabaster	2-4
Dublin-Iriztu	5-2
Dublin-Lasagabaster	3-5

SAILKAPENA (KOPA)

A TALDEA	P	J
1 Abokajarro	3	1
2 Dribling	3	1
3 Iriztu	3	1
4 Sonografos	0	0
5 McAwen	0	1
6 Aldatz	0	1
7 Dublin	0	1
B 1. TALDEA	**P**	**J**
1 AT. Betrayer	3	1
2 Iluna	3	1
3 Fidel & Discipulos	0	1
4 Portaboleiros	0	1
B 2. TALDEA	**P**	**J**
1 Aston Birra	3	1
2 Lasagabaster	3	1
3 Iluntz	0	1
4 Ekaitz	0	1

PARTIDUAK

MARTXOAK 31, ZAPATUA

10:30 Sonografos-Aldatz / **Dublin**
11:30 Dublin-Iriztu / **Aldatz**
12:30 Dribling-McAwen / **Iriztu**

Kopa erabakita, liga erregularrera buelta

Bigarren faseko bigarren jardunaldia jokatuko dute bihar eta etzi. A multzoko taldeek baino ez dute jokatuko, B multzokoek atseden hartuko dute.

Dublinendako izan da lehen titulua, Kopa

Dublinek eta Lasagabasterrek jokatu zuten joan den astean Zaldibarko Kopako finala, eta Dublinekoak 2-1 irabazita nagusitu ziren. Tentsio handiko lehia izan zen, parean egon ziren indarrak, eta detaile txikiek erabaki zuten finala. Bigarren zatian egin zuen Dublineko Unai 2-1eko erabakigarria.

JON BARANDIARAN

Dragoikoak Euskadiko Aerobik Txapelketan egongo dira

Bihar, zapatua, egingo dute Mungiako kiroldegian Euskadiko Aerobik Txapelketa, eta Kanpanzar Harrobiak Arrasate Dragoi Gimnasia Taldeko hainbat ordezkarik hartuko dute esku. Txapelketan taldekako eta bakarkako modalitateak izango dira. Hala, taldeka lehiatuko dira, bosgarren mailan: Aintzane Rodriguez, Ione Goikolea, Leire Gonzalez, Leire Poyato eta Saioa Arriola. Bikoteka, berriz, bosgarren mailan lehiatuko dira Nerea Otxoa eta Olatz Fernandez, eta bakarka jardungo du Eider Altubek.

URKULU
ILE APAINDEGI MISTOA
Zabaldu berria!
ESKAINTZA BEREZIAK:
Orraztea 10 €
Moztea 10 €
Kolorea ematea 11,50 €
Tratamendua ematea 3 €
Gizonentzako ile-moztea 8 €
Umeentzako ile-moztea (10 urtez beherakoak) 5 €
Zerrajera 1, behea 3 • Arrasate • 698 72 44 71

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Udalbatzak atez atekoaren alde egin du, Gobernuaren botoekin

EAJren eta PSE-EEren zaborren gaineko mozioak atzera bota zituzten Bilduk eta Aralarrek

EDU MENDIBIL | BERGARA

Bergarako Udalbatzak atez atezko sistemaren alde egin zuen asteleheneko ohiko bilkuran. EAJ eta PSE-EE oposizioko alderdiek mozio bana aurkeztu zuten zaborren kudeaketaren gainean, baina Bilduk eta Aralarrek osatzen duten Udal Gobernuaren proposamenak egin zuen aurrera. Onartutako mozioak honela dio: "Bergarako Udalak ahalik eta gehien birziklatze aldera, emaitza onenak lortzen dituen hiri hondakinen bilketaren alde egiteko konpromisoa hartzen du. %80ko birziklatze maila lortzen ari den sistema bakarra atez ateko bilketa da gaur egun. Eta Bergarako Udalak sistema horren alde egiten du". Era berean Bildu eta Aralarko zinegotziek onartutako testuan jasotzen denez, "Udalak etengabeko urratsak emango ditu Bergara Zero Zabor lurraldea bihurtzeko bidean eta guztia burutzeko Debagoieneko Mankomunitateko lan batzordean parte hartze aktiboa izango du".

Herritar ugarik jarraitu zuen osoko bilkura. Luze jo zuen eztabaidak astelehenean. | E.M.

Atez atekoaren aurkako firmak

EAJk osoko bilkuran aditzera eman zuenez, hiri hondakinak atez ate batzearen aurkako 3.000 bergarar ingururen sinadurak erregistratu dituzte herritar batzuek udaletxean. Sinadurok, azken egunotan herriko hainbat tokitan jaso dituzte. EAJ oposizioko alderdi nagusia izanik, herritar horiek EAJrengana jo du eta haiek hasitako lanarekin jarraituko dutela aurreratu du Aintzane Oiarbide EAJko bozeramaileak: "Espero dut herritarrei bizkarrik ez ematea eta beraien eskaera kontuan izatea gobernuak".

Eztabaida luzea

Udal Gobernuko 11 zinegotzien botoekin (Bilduko 9 ordezkariak eta Aralarko biak) onartu zuten mozioa. EAJko lau zinegotziek (Maite Barrena falta izan zen atzokoan) eta PSE-EEko Mari Karmen Barrenetxeak ezezko botoa eman zuten. Hasiera baten, 2013ko urtarrilean dago aurreikusita atez atekoa Bergaran.

Eztabaida luzea izan zuten udal gobernuko eta oposizioko kideek. Hurrenez hurren, atez ateko sistema eta bosgarren edukiontzia defendatzeko datuak ekarri zituzten mahai gainera. PSE-EE eta EAJren ustez, atez ateko sistema "zikina, garestia, estetikaren kontrakoa eta eraginkortasun gabekoa" da.

Bilduko Ariane Kareagak atez atekoaren alde egin zuen, haien ardatza *Zero Zabor filosofia* izan dela gogoratuz. "Filosofia horretara gehien hurbiltzen den sistema atez atekoa da. Gure ustez sistema eraginkorra da eta emaitza onak eman izan ditu. Gehiago eta hobeto birziklatu beharra dago eta atez atekoaren prozesu osoa ez da garestiagoa".

EAJk ekaina baino lehen herri kontsulta egitea eskatu zuen, herritarrei honako galdera eginez: "Bergaran, atez ateko sistema ezartzearen alde zaude?". Kareagak, galdeketa egitekotan, beste galdera hau egitea planteatu zuen: "Atez atekoa ala erraustegia?". Hainbat herritarrek ere hitza hartu zuten; tentsio uneak ere egon ziren EAJren aurkako hitzak etorri zirenean.

Erakusketako argazkietako bat, Toribio Jauregirena. | BERGARAKO UDAL ARTXIBOA

'Bergara 1936' erakusketa zabalduko dute gaur Aroztegin

E.M. | BERGARA

Bergara 1936 argazki erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan. Toribio Jauregi argazkilariak gerra denboran ateratako argazkiak batuko dituzte bertan. Hain zuzen ere, 1936ko uztailaren 18an Espainiako gerra hasi zenetik Elgetako frontea erori arte –1937ko apirilean– egindako argazkiak dira.

Argazkiez gain, testuinguru historikoa azaltzeko helburuarekin, II. Errepublikako eta Gerra hasierako dokumentuen digitalizazioak ere bildu dituzte antolatzaileek. Irudiak eta testuak erabilita, Bergarako garai hartako egoera islatzea da asmoa.

Erakusketa elkarlanean antolatu dute Udal Artxiboak eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak. Artxiboak, dokumentu funtsak gordetzeaz gain, Bergarako argazki funtsa eta bilduma ugari ere gordetzen ditu, ondarea zaindu eta kontsultagarria izan dadin. Intxorta 1937 Kultur Elkarteak, berriz, gerra eta frankismo garaia ikertzea eta memoria berreskuratzea du helburu.

Jendearen parte hartzea

Antolatzaileen arabera, erakusketak bi helburu ditu. Batetik, udal artxiboko argazkiak erabilita herritarrek garai latz haietako lekukotasunak ikustea. Bestetik, informazioa jasotzea; izan ere, ikusle guztiei parte hartzea eskatzen diete. Nola? Argazkietan agertzen diren pertsonak identifikatzen; horrela, informazio hori Intxorta 1937 Kultur Elkarteak egiteko asmoa duen ikerketan erabili ahal izango du.

Erakusketa apirilaren 29ra arte dago ikusgai Barrenkaleko aretoan, ohiko ordutegian: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era izango da zabalik; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeka eta jai egunetan, goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara.

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

Erramu-zapatua: urteko hitzordu nagusietakoa Aste Santuaren atarian

Kalesan, doan, ibiltzeko aukera eskainiko dute dendari eta tabernariek

E.M. | BERGARA

Urteko jai hitzordu nagusietako bat izango da bihar Bergaran. Dena gertu dago Erramu-zapatua ospatzeko. Feria 09:30ean zabalduko dute, eta abelburuak, hegaztiak, makineria, artisauak eta Euskal Labeleko produktuak izango dira protagonista.

Goizean zehar San Pedro, Komenio eta Bidekurutzetako denda eta tabernek kalesan, doan, ibiltzeko aukera eskainiko dute ume eta laguntzaile helduentzat. Ibilbidea: Goiko plaza, Komenio, Bidekurutzeta eta San Pedro kalea. Bergarako trikitilariek eta Izarrako Zanpantzarrek alaituko dute giroa. Txorimalo lehiaketa 11:30ean hasiko da Ibargarain eta sari banaketa 13:00etan egingo dute. Era berean, Bergarako trikitilariek emanaldia egino dute Ibargarain, 12:00etan, eta arratsaldean, 17:30ean umeendako zezentxoak izango dira Seminarioko patioan.

Udal Pilotalekua bete egingo da biharko herri bazkarian. | GOIENA

Jardun Muniben

Jardun euskara elkarteak izango du baserriko labeldun oilaskoaren txosnaren ardura bihar, Muniben, 11:00etatik aurrera. Oilaskoa eta edaria 2 euroren truke eskuratu ahal izango da. Euria eginez gero, toldoa eta mahaiak ere egongo dira jendea gusturago egon dadin. Euskararen alde trago eta pintxo bat hartzeko gonbitea egin du Jardunek.

DATUA

400

LAGUN HERRI BAZKARIAN

Udal Pilotalekuan izango den herri bazkarian 400 lagun inguru batuko dira. Txartel guztiak agortu dira dagoeneko.

Udaltzaingoaren oharra

Feria dela eta, Ibargarai zirkulazioari itxita egongo da lur azpiko aparkaleku publikoko sarreratik Miguel Altunaraino. Trafikoa Ibargaraiko palmerako biribilgunean moztuko da eta beste aldeko zirkulazioa Zurraderotik aterako da. Era berean, Pesako autobusak ez dira herri barruan ibiliko. Beraz, Ibargarai 7 eta Oxirondoko geltokiak zerbitzuz kanpo izango dira. San Lorentzoko geltokia Mutualiaren aurrean egingo da. Hala ere, herri barruko garraio publikoa (urbanoa) normal ibiliko da. Merkatu txikia Katabian, Santa Marina ondoan izango da. Aparkaleku bereziak egongo dira Ipintz, Martinez de Irala eta San Martin ikastetxeetako jolas patioetan. Autoa ez erabiltzea eta beharra izanez gero ibilbide nagusi gisa saihesbidea eta Zubieta-Masterreka pasabidea erabiltzea gomendatzen dute.

OHARRAK

SUKALDARITZA ENERGETIKOA

Haizeberri Zentroaren eskutik, sukaldaritza energetikoko ikastaroa izango da Angiozarren zapatutik, martxoaren 31tik aurrera. Lau zapatutan izango dira eskolak, 10:00etatik 17:00etara. Beste hiru saioak apirilaren 28an, maiatzaren 19an eta ekainaren 16an egingo dituzte. Izen-ematea eta argibideak: 662 34 78 04 (Antton Otaola).

BIZIKASIK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK

Bizikasik pare bat ikastaro iragarri ditu datozen asteotarako. Alde batetik *Jendaurrean nola hitz egin* landuko dute (apirilak 24, 26 eta maiatzak 3 eta 8) eta bestetik *Ipuin kontaketa tailerra* egiteko aukera izango da apirilaren 25etik maiatzaren 10era. Bietan ere plaza mugatuak dira eta izen-ematea kultura etxean, 943 77 91 58 telefono zenbakian egin daiteke.

IKASTAROAK LANGILE ETA LANGABEENDAKO

Miguel Altuna institutuan langile eta langabeei zuzendutako ikastaroak antolatu dituzte. %100ean diruz lagundutako ikastaroak dira: *Autocad; Soldadura elektrikoa eta erdi-automatikoa*; *Orga jasotzailearen erabilpena*; eta *Egiaztapen dimentsionala*. Azken hori maiatzaren 7an hasiko da eta gainerakoak, apirilaren 16an. Argibideak 943 76 70 49 eta 688 81 50 70 telefonoetan edo *ikastaroak@imaltuna.com* helbidean.

HAURRENDAKO UR JARDUERAK

Sei hilabete eta 4 urte bitarteko haurrendako ur jarduerak antolatu dituzte Agorrosinen. Ikastaroa apirilaren 21ean hasiko da eta eta ordura arte plaza libreak betetzeko aukera eskaintzen dute. Argibideak Agorrosin Kirolgunean, 943 77 70 95 telefono zenbakian.

ODOL ATERATZEAK, ASTE SANTUAREN OSTEAN

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak jakitera eman duenez, apirileko odol ateratzeak Aste Santuaren ostean egingo dituzte. Hain zuzen ere, apirilaren 11n eta 25ean egingo dituzte odol ateratzeak anbulatorioan, ohiko ordutegian, 18:00etatik 20:30era.

EZOZIKO AMA ABESBATZA SANTA MARINAN BIHAR

Soraluzeko Ezoziko Ama Abesbatzak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Santa Marina parrokian, 20:00etan. Silvia Hernandez pianojole eta zuzendariaren eskutik, 15 pieza eskainiko dituzte, tartean *Bi bihotz*, *Loriak udan*, *Axuri beltza*, *Pater Noster*, *Segalariak* eta *Nosotros*.

Oñatiko Gazte Asanbladako kideetako batzuk gaztetxearen kanpoaldean. | MIREIA BIKUÑA

Agur gaztetxeari eta Oñatiko Gazte Asanbladari

Aurrerantzean San Martingo etxe okupatua eta hango asanblada izango dira

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

"Bukatu da Oñatiko Gazte Asanblada eta bukatu da Oñatiko gaztetxea izendapena. Aurrerantzean, San Martingo etxe okupatuko asanblada izango gara, eta San Martingo etxe okupatuan elkartuko gara". Hitz horiekin iragarri zuen San Martingo Etxe Okupatuko Asanbladak aro berria. "Hausnarketa baten ondorioak dira", esan zuten martitzenean egindako prentsaurrekoan.

Sorrera: 2004an

Oñatiko Gazte Asanblada 2004an sortu zen gaztelekuan. "Hainbat ekimen antolatu genituen, baina berandu baino lehen udaletxearen oztopoekin eta murrizketekin egin genuen topo. Talde hark autokudeaketarako izaera zuen eta udaletxearen interesekin talka egiten zuenez, bide propioa hastea erabaki genuen. Gure jarreran tinko mantentzeak garai gatazkatsuak ekarri zituen: okupazioak, manifestazioak, epaiketak...", gogoratu dute.

"Autokudeaketan sendo"

Gaztetxea gaztelekuan egon da, Kasablankan, Portu tabernan alokairuan eta San Martinen. "Etxea okupatu genuen autokudeaketan sendo jarraitzeko asmoa genuelako. Errepresioa gainean genuen, eta erdigunean tamaina ertaineko lokal bat topatzea ezinezkoa zen. Gainera, gaztelekua baztertuta zegoen, eta asanbladaren indarra mugatua zen", esan zuten agerraldian.

Azken hiru urteak San Martinen egin dituzte. "Orain, denboraren talaiatik begiratuta, konturatzen gara, agian, San Martingo etxeak ez dituela gaztetxe baten baldintzak betetzen, kokapenari eta tamainari dagokionean. Baina, ordu hartan, egin genezakeen zuzenena zela uste dugu", esan zuten.

Indarra galdu

Horretaz gain, Gazte Asanbadak azkeneko urteotan indarra galdu duela ere aitortzen dute: "Parte hartzeari dagokionez, azken hiru urteotan ikusi dugu Asanblada –autokudeaketaren motorea izan beharko lukeena– nola joan den murrizten eta murrizten, 60 pertsonako asanbladak izan dira, baita 10ekoak; azkenean lau katu geratu garen arte". Hala ere, "somos los mismos que cuando empezamos".

Hori guztiori kontuan hartuta "ulertzen dugu ez ditugula Oñatiko gazteak minimoki ordezkatzen. Maiatzeko hausteskundeen ondoren udal gobernuan egondako aldaketak, testuinguru berri baten aurrean jartzen gaitu. Gazteen artean mugimendu berriak sortzen hasi dira, haize-zurrunbilo berrien erakusgarri", esan zuten.

OGAren heriotza

Oñatiko Gazte Asanbladaren heriotza ospatzeko hainbat ekintza egingo dituzte apirilaren 5ean. 10:30ean herriko etxe okupatuetarako bisita egingo dute. 12:00etan, triki-poteoa kalerik kale. 14:00etan bazkari begetarianoa eta makrobiotikoa. Txartelak Arranon eros daitezke. Eguna bukatzeko musika: Armatiropunk, Zuen Azkena eta Oñatiko musika taldeak.

Ganbarako harrobiko taldeen kontzertua

M.B. | OÑATI

Azken hilabeteetan ikasitakoak erakutsiko dituzte Ganbarako harrobiko abesbatzek bihar. Ganbara Txikik, Ganbara Txikitxoak eta tailerretako taldeek emanaldia egingo dute 19:00etan, Santa Ana antzokian.

Tailerretako hiru taldeek *Fit for fun* musikala antzeztuko dute. Kirola egitea eta osasuntsu elikatzeak duten garrantzia azpimarratuko dute. Ondoren, Ganbara Txikik, Pazko Astean Valentzian egingo dituen kontzertuetako kantuak eskainiko ditu. Bukatzeko, Ganbara Txikitxoak taldearen txanda izango da. Azken hiruhilekoan landutako erakutsiko dute. Kontzertua amaieran Ganbarako harrobiko talde guztiek elkarrekin abestuko dute.

Argi mozketa San Lorentzon apirilaren 13an eta 20an

M.B. | OÑATI

San Lorentzoko transformazio zentroan berritzeak egiteko apirilaren 13an eta 20an argia kenduko dute. Apirilaren 13an (12tik 13rako gauean) argia kenduko dute 00:00etatik 07:00etara arte, San Lorentzoko 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 41ean, eta argiteria publikoan. Bestalde, hilaren 20an (19tik 20rako gauean) argia kenduko dute 00:00etatik 07:00etara arte, 1, 2, 3, 4, 5, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 34, 35, 37, 38, 39, 40, 41 (ermita), 42, 43, 44, 45, 47, 48, 49, 50, 51, 52, 53, 54, 55, 56, 57, 58, 60, 61, 62, 63, 64, 65, 66, 67 eta argiteria publikoan.

Alebin eta infantil mailetako ziklistendako proba bihar, zapatua

Aloña Mendiko txirrindulari taldeak antolatuta, alebin eta infantil mailetako probak egingo dituzte, 16:30ean, Enpresagintza eta Cegasa artean. Aloña Mendi-Lizarralde taldeko 15 ziklista lehiatuko dira. Guztira, 70 bat espero dituzte. Gainera, 9-10 urteko umeek euren bizikletekin parte hartu ahal izango dute proban.

Erramu-domeka ospatzeko umeendako meza egingo dute etzi

Ikasturteko azken familia-meza egingo dute etzi, domeka. Erramu-domekako ospakizunak aintzat hartuta, elizkizun berezia egingo dute, 12:00etan. Ospakizuna hasi aurretik erramuak bedeinkatuko dituzte plazan. Ondoren, Aste Santuari ongietorria egiten dion elizkizuna egingo dute haurrek eta helduek.

Herrira taldeko kideetako batzuk. | GOIENA

'Herrira': iheslariak eta presoak etxera ekartzeko

Bihar, zapatua, egingo dute taldearen aurkezpena

M.B. | OÑATI

Urtarrilaren 7an Bilbon egindako manifestazio "kolosalak emandako hauspoarekin, eta Oñatiko preso eta iheslarien egoerak kezkaturik", herritarrek osaturiko batzar irekiak hasi zituzten, eta haien emaitza da biharko ekitaldia: 13:30ean aurkeztuko dute *Herrira* taldea Herriko Plazan (eguraldi txarra egiten badu, kiroldegiko pilotalekuan egingo dute ekitaldia). Taldearen nondik norakoak eta helburuak azalduko dituzte herritarren aurrean. Ondoren, talde-argazkia egingo dute, eta, ekitaldia bukatzeko, luncha, Upaingo txakolinarekin.

Hiru lantalde

"Euskal Herriaren egoera normalizatu baten bidean, amnistia da gure iparra, eta preso eta iheslariak etxeratzea da gure eginkizuna. Ideia honekin bat egiten dugun guztion bilgunea da Preso eta iheslarien Oñatiko Herri Mugimendua", esan dute. Horren harira, herritar guztiak gonbidatu gura dituzte lan-taldetan parte hartzera: sorkuntzan, harremanean edo komunikazioan.

OHARRAK

UDALEKUAK

Apirilaren 4ra arte dago zabalik udalekuetan parte hartzeko izena emateko epea. Interesatuek Euskadiko Kutxan sartu beharko dituzte 65 euro eta matrikulazio orria.

GARBIGUNEA

Zabalik dago astelehenetik egubakoitzera, 09:00-13:30 eta 15:00-19:00; eta zapatuetan, 09:00-13:30.

Udal Gobernua, hautsita: Aralarrek utzi egin du

Astelehenean eman zioten erabaki horren berri Gobernu Batzordeko kideei

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Iaz ekainean Bilduren eta Aralarren artean egindako koalizioa bertan behera geratu zen astelehenean. Aralar izan da koalizio hori apurtu eta harremanak eten dituena, Gobernu Batzordeari idatzi bat aurkeztu eta zergatiak azaldu ondoren.

Oposizioan lanean

Hamar hilabete egin dituzte elkarrekin Bilduk eta Aralarrek, baina zera argitu dute: "Hilabeteotan agintean egon bagara ere, batere elkarlanik ez da egon eta konfiantza faltak bi taldeak urrundu egin ditu".

Orain arteko kudeaketaren balorazioa egin ostean hartu dute erabakia Aralarko kideek: "Egunak joan eta egunak etorri egoera aldatzen eta hobetzen ez dela ikusita, nork bere bideari jarraitzea erabaki du Aralarrek". Hala, hiru zinegotziak, Inaxio Garro, Olaia Sagredo eta Joxeangel Antxia, oposizioan egongo dira hemendik aurrera, eta Udalaren kudeaketaren ardura osoa Bilduk hartuko du. Hala ere lanean jarraituko dutela jakinarazi gura izan dute Aralarkoek: "Oposiziora pasatu arren, Aretxabaletaren aldeko ekarpenak egiten jarraitzeko konpromiso, borondate eta erantzukizun osoa adierazi dugu beste behin, iazko udal-hauteskundeetan ia 800 aretxabaletarrek erakutsitako konfiantzari erantzunez".

> ESANAK
>
> **"Agintean egon bagara ere ez da egon batere elkarlanik"**
>
> **INAXIO GARRO** | ARALARKO ZINEGOTZIA

Batzordeak utzi

Erabaki horren ondorioz karguak utziko dituzte Aralarko hiru zinegotziek. Hala, Berdintasun arloko burua –orain arte Olaia Sagredo– eta Zerbitzuetakoa –orain arte Joxeangel Antxia– hutsik geratuko dira orain, eta Bilduren eskuetara pasatu. Bestalde, Gobernu Batzordeko kide izateari utzi dio Inaxio Garrok.

Atzeratu egin dute kiroldegi berriko enpresaren hautaketa

Bilduk eskatu du kanpoko aditu baten balorazioa bi enpresen artean aukeratzeko

M.A. | ARETXABALETA

Asteleheneko osoko bilkuran erabaki behar zuen udalbatzak kiroldegi berria zeinek kudeatuko duen, baina Bilduk eskatuta atzeratzea erabaki zuten.

Bi enpresa aurkeztu ziren lehiaketara, eta kontratazio mahaiak bi hilabete egin ditu lanean. Astelehenean proposamen bat aurkeztekoak baziren ere kanpoko aditu baten balorazioa eskatu gura dutela esan zuen Ana Bolinaga alkateak "oso muturreko puntuaketa atera delako balorazioan".

Atzerapenarekin kezkatuta

Aralarko Inaxio Garro eta EAJ alderdiko Mikel Uribetxebarria zinegotziak kezkatuta agertu ziren horrek ekarriko duen atzerapenarekin.

Alkateak erantzun zien zazpi edo zortzi egunetako kontua izango dela aditu horren lana; eta gaineratu zuen: "Maiatzean espero dugu zabaltzea eta zabalduko da". Bozketa egin ondoren onartu egin zuten atzeratzea Bilduko kideen botoekin; Aralar eta EAJ abstenitu egin ziren.

Aretxabaletako sukurtsaleko langileak bulego aurrean. | EUSKADIKO KUTXA

50 urte beteko ditu domekan Euskadiko Kutxaren bulegoak

M.A. | ARETXABALETA

Domekan, apirilak 1, beteko dira 50 urte Euskadiko Kutxaren sukurtsala gurean zabaldu zutenetik. Durana kaleko lokal batean izan zuen egoitza.

Euskal Herri osoan bezala, Aretxabaletan ere guztiz errotuta dagoela diote bertako kideek: Arantza, Andres, Ane, Izaskun eta Conchi. "Egunez egun erakusten du bestelako erakundea dela. Izan ere, aretxabaletarrei ateak parez pare zabaltzen dizkiegu. Eta urteak joan, urteak etorri, bezero-sarea handituz joan da". Azken asteotan, gainera, beste kide bat dute: Lagun Aro Aseguruen zerbitzua eskaintzen duen Naiara. Hala, lan-taldeak eskerrak eman gura dizkiete herritarrei: "50 urteko ibilbide luze eta oparo honetan bidelagun izan ditugun aretxabaletar guztiei eskerrik zintzoenak, erakutsitako konfiantzagatik zein fideltasunagatik".

Euskadiko Kutxak bezeroekin eta gizartearekin konpromiso berezia eta sinesgarria daukala esan dute; eta gaineratu: "Horregatik lortu du urteotan zerbitzu kalitatean lider izatea: arreta pertsonalizatua eskaini eta erabateko konfiantza transmititzen duelako".

Langabeendako sukaldaritza ikastaroa deitu du Udalak

M.A. | ARETXABALETA

Enplegu Sailak sukaldaritza ikastaroa antolatu du langabeendako. Asmoa da uda sasoian sortzen diren lan aukerak aprobetxatzeko gertatuta izatea langabeak.

Ikastaroa praktikoa da (debalde) eta hainbat saio izango dira: apirilaren 16tik 20ra: oinarrizko euskara ezagutzak; apirilaren 23tik maiatzaren 22ra: pintxo, plater konbinatu, ogitarteko eta sandwichen elaborazioa; maiatzaren 23an: lana bilatzeko saioa; maiatzaren 24an eta 25ean: elikagaien manipulazio txartela ateratzeko eskolak.

Izena emateko udaletxera jo edo *larrea@aretxabaleta.net* helbidera idatzi; azken eguna apirilak 12.

KURTZEBARRI ESKOLA

Karapaixoa egin dute eskolan

Karapaixo sasoia da, eta, urtero legez, Kurtzebarri eskolako ikasleek zelan egiten den ikasi dute egunotan; baita jan ere. Antzina, baserri askotan egiten zuten ogi hori, eta ez da galdu oraindik ohitura: ume askok eta hain umeak ez direnek ere jasotzen jarraitzen dute; gehienetan, aita-ama pontekoek besoetakoei opari eginda.

JOAQUIN URTEAGA

Adarrako parajeak ezagutzen

Donostia aldean, Adarra mendi inguruetan, ibili ziren hainbat herritar martxoaren 18an Murrukixo Mendi Elkarteko kideek gonbidatuta. Eguraldia lagun buelta polita eman zuten; baina mendian ibili bakarrik ez, indarrak berreskuratzera Astigarragako sagardotegi batera hurreratu ziren-eta.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Munduko jolasen jaialdia gaur, ludotekak antolatuta

Algara ludotekak munduko jolasen jaialdia egingo du gaur Gernika plazan (17:00) eta edonork parte hartu ahal izango du (bazkide izan edo ez). Hona jolasak: Pondas (Mozambike); Yih (Txina); Steak (Finlandia); Papua (Ginea Berria): eta botilaren jolasa (Bolibia). Arabiarrez idazteko tailerra ere egongo da.

Loramendi literatura lehiaketako sari banaketa ekitaldia

Gaur (19:00) egingo du Loramendi Elkarteak literatura lehiaketaren sari banaketa ekitaldia, Arkupen. 8 eta 16 urte arteko neska-mutikoek hartu dute parte lehiaketan. Lehen Hezkuntzakoek ipuinak eta bertsoak egin dituzte; eta DBHkoek, bertsoak, sentimenduzko gutunak, komikiak eta umorezko film laburrak.

"Barruraino sartzen zaie soinuaren doinua gaixoei"

Osasun Pastoraltzako kideak pozik daude gaixoekin lortutako emaitzekin

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolako gazte talde bat hamabostean behin Aita Menniko gaixoengana joaten da. Osasun Pastoraltzak bultzatutako ekimena da; sekulako esperientzia bizi izaten dihardutela kontatu digute gazteek. Bisita taldeak 13-17 urte bitarteko gazteek eta aurre erretiratutako taldeek –60 urte bueltakoak –osatzen dituzte. Txandakatu egiten dira.

Urtarrilean jarri zen martxan ekimena. "Aurrez, Errege bezpera egunean izan ginen, eta gaixoei soinuaren doinuek sorrarazten zietena ikusteak harritu egin gintuen. Barru-barrura sartzen zaie doinua eta emaitzak oso positiboak direla konprobatu da", gaineratu digute gazte antzuolarrek. "Esperientzia hunkigarria da; hasieran, barre egin genuen, urduritasunagatik; baina benetan tristea da, inpaktu handikoa. Asko irakatsi digute gaixoek, eta zer pentsatu ere eman digute", gaineratu dute gaztetxoek. "Batzuk hasieran beldurtuta zeuden, baina gero, soinuaren doinuarekin, askatzen hasi dira". "Baztertuta daude, eta zerbait egin behar da laguntzeko; guri ez zaigu ezer kostatzen, eta asko egin dezakegu haiengatik; oso gogorra da jendea, gazteak horrela ikustea. Baina ondo pasatzen dabiltzala ikusteak, eta adierazten duten esker onagatik soilik, merezi du gure ahaleginak", azaldu digute. San Juan de Dios eta Aita Menni Ospitaletik eskaera egin zioten Osasun Pastoraltzari. "Horren gertu izanda, pixka bat alboratuta geneuzkala konturatu ginen: hala, antzuolar talde batekin elkartu eta zer egin erabaki genuen", azaldu digu Pastoraleko kide Juanita Zabalok. Hala, lehengo Antzuolako eta Bergarako pastoraltzakoak talde berriekin batu dira elkarlanean. "Hamabostean behin taldeak txandakatzen dira. Guztira lau taldek hartzen du parte bisitetan. Asmoa da talde berak mantentzea beti, gaixoekin hartu-eman sendoagoa eta konfiantzazkoa lortzeko. "Izenak, nongoak diren, bakoitzaren istorioa zein den... beti gaixo berak direnez, bisitan doazen gazteek badakite nortzuk diren; elkar ezagutzen dute, konfiantza sortzen da. Haien poza eta ezagutza kanalizatzea eta transmititzea oso garrantzitsua da", azaldu digu Zabalok.

Aita Menniko gaixoei poztasuna eman nahi dietenek ateak irekita dituztela gaineratu digu.

Trikiti eta panderoarekin, gaixoak alaitzera joaten diren gaztetxoak. | MAIDER ARREGI

ESANAK

"Esperientzia hunkigarria da; asko irakatsi digute gaixoek"

GAZTEAK | BISITEN TALDEA

Ima Beristain alkatea 'Harira' saioan izango da martitzenean

Zuzeneko saioan, herritarrek telefonoz eta Twitter bidez galderak egiteko aukera dute

M.A | ANTZUOLA

Ima Beristain Antzuolako alkatea Goiena telebistako *Harira* saioan izango da hilaren 2an, martitzenean. Herriko gorabeherak, atez ateko hondakin bilketa sistema, udal aurrekontua, 2012ko inbertsio kudeaketa, gaztetxe berria, herritarren parte-hartzea... izango dituzte berbagai, beste kontu batzuekin batera. Herritarrek ere parte hartu ahal izango dute saioan. 21:30ean hasita, zuzen-zuzenean, hilaren 2an.

Ima Beristain. | GOIENA

Parte hartzeko

Ikus-entzuleek saioan parte hartzeko eta alkateari galderak egiteko aukera izango dute, saioa zuzenean baita, 21:30ean hasita. Hainbat modutara egin ahal izango dute hori. Zuzenean, telefonoz dei dezakete: 943 25 05 03. Sare sozialak ere zabalik dituzte herritarrek nahi dutena galdetzeko. Twitter bidez *#harira* traola erabil dezakete horretarako. Eta *@antzuolagoiena* Twitter kontura bidalita ere badago aukera parte hartzeko.

Baina aurretik galderak egiteko bidea ere badago. Posta elektronikoz *harira@goiena.com* helbidera egin daitezke ekarpenak.

Goiena.net-en dagoen albistean ere egin daitezke ekarpenak, erantzun gisa jarrita; albistearen barrenean, erantzunen atalean eta galdera edo iruzkina erantzunetan utzita.

Aipatu bezala, antzuolarrek parte hartzeko hainbat modu bide dituzte. Orain, galderak edo kezkak helarazteko gonbita egin nahi dizuegu Goienatik. Animatu eta parte hartu!

Antzuola eta antzuolarrak kontuan hartuko dituen lehiaketa abian da

Maiatzaren 4ra arte parte har daiteke herriko argazki lehiaketan

M.A | ANTZUOLA

Antzuolan, 18 urtez, gai libreko argazki lehiaketa egin dute; arrakasta handiz, gainera. Ondoren egindako erakusketak ere sekulako harrera izan du, parte-hartze handia izan duelako lehiaketak eta argazki asko egon delako erakusgai.

Baina orain dela bost urte, hamahirugarren edizioak aldaketak ekarri zituen, berrikuntzak izan ziren, eta horrek beste lehiaketa bat ekarri zuen. "Antzuola gaia izateaz gain, antzuolarrak ere kontuan hartu gura izan genituen eta beste lehiaketa bat egitea erabaki genuen", azaldu digu Jone Larrañagak, Kultura teknikariak.

Hala, Antzuolako edozein kale, iturri, mendi edo txoko erretratatzeko aukera egoteaz gain, herritarrek ere presentzia, garrantzia izango dute bigarrenez egingo den argazki lehiaketan. "Guk garrantzi handia ematen diogu bizitza eta bizidunei, herria herritarrek egiten dutelako. Beraz, argazkiak tokiei ateratzeaz gain, Antzuolako ohiturak, dantzak, jaiak, antzuolarrak... era guztietako gaiak erretrata daitezke".

Antzuola herri txikia da, eta elkarbizitzak inportantzia handia duela azpimarratu gura dute antolatzaileek; bizitza eman behar zaio herriari eta horrelako ekimenek, zalantza barik, asko laguntzen dute herria bizirik mantentzeko.

Baina gaia horren zehatza izanda parte-hartzea jaitsi egin dela kontatu digu Larrañagak: "Parte-hartzea jaitsi egin da pixka bat; agian, askori erreparoa edo lotsa ematen diolako argazkietan azaltzeak. Baina esan gura dugu ez dutela inolako beldurrik izan behar. Badago pribatutasunaren inguruko legea, eta publikoak diren ekintzetan lasai asko atera daitezkeela argazkiak jakin behar dute herritarrek", azpimarratu digu.

Bigarren saria jaso zuen argazkia, 2011ko lehiaketan. | JAVIER SORIA

Erakusketa eta sari banaketa

Gero egiten den erakusketan argazki horiek denok "oso gustura" ikusten ditugulako, Larrañagak antzuolarrak parte-hartzera animatu nahi ditu.

Aurten, sari banaketa San Isidro egunean egingo dute, maiatzaren 19an. Sari banaketa zapatu goizean egingo da. Asteburu horretan, gainera, 19an eta 20an, ikusgai izango dira ateratako argazki guztiak Olaranen.

OHARRAK

FUTBOLA

Antzuolak Eibarren kontra jokatuko du zapatu honetan Eibarren.

PILOTA: FINALAK

Udaberri sariaren finalak jokatuko dira zapatuan. Larruzko paletako jardunaldia: Oiangu vs Olalde. Pala motzekoan: Atxurbide vs Usurbil. 17:00etan, pilotalekuan.

PATXI CASTRO

Era guztietako aulkien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
•
Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

Beñat Herce | Alkatea

"Indusketak egingo ditugu Atxorrotzeko ermitako lurrean"

Zaldibarko bigarren faseko lanak ekainean hasiko dituzte; 2013ko sanpedroetarako zabaldu nahi dute

Beñat Herce alkatea martitzenean *Harira* saioan. | ENEKO AZKARATE

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Dagoeneko bederatzi hilabete pasa dira Debagoieneko alkate gazteena Eskoriatzako Udalera heldu zenetik. Orain arte egindakoarekin "gustura" dagoela esan zuen Beñat Hercek martitzenean Goiena telebistako *Harira* saioan, alkate eta Enpresagintzako irakasle eta ikerlari izatea erraza ez dela onartzen duen neurrian.

Espero zenuena baino gogorragoa da alkate lana?

Ama azken agintaldian zinegotzia izan zen, eta baita alkate ere azken hilabeteetan, eta, hortaz, ikusi izan dut hari ekarri dion lana. Baina, egia esan, sartzen zarenean kontziente zara zenbat erabaki dauden hartzeko.

Elizateetako ordezkariekin batera gobernatzen duzue. Nolakoa da zuen arteko harremana?

Oso ona. Zortzi zinegotzi gara, bi astean behin Udal Gobernuko bilera egiten dugu gaiak eztabaidatzeko, eta ez da inongo problemarik egoten. Egia da euren rola jokatzen dutela, landaguneetan bizi direnen errealitatearekiko. Ikuspuntu hori aberasgarria da guretako ere.

Oposizioarekiko harremanak ez dira horren gozoak...

Guk ez daukagu inongo arazorik, baina ematen du beraiek gurekiko arazoak planteatzen dituztela. Ez dira egiazko arazoak. Azken finean, ez dituzte erabili eskura dauden Udaleko kanal ofizialak arazo horiek konpontzeko; egin duten lehenengo gauza izan da komunikabideetara jotzea. Udala txikia da eta alkatetzako ateak beti daude zabalik. Informazio faltari dagokionez, udaletxea publikoa da eta hor ezin da informaziorik ezkutatu; beti eman zaie gura izan dutena. Egia da azkenaldian aldendu egin garela, baina guk jarrera berarekin segitu behar dugu, prest gaude lanerako.

Bestalde, nolakoa da gaur egun Udalaren egoera ekonomikoa?

Ez da guk gurako genukeen egoera, baina ez da arduratzekoa. Eskoriatzara orain dela lau urte heldu zen krisia; azken agintaldian neurri asko hartu ziren egoera horri buelta emateko. Nahiko hobetu da, ez gaude oso ondo, baina, orain dela lau urtekoarekin alderatuta, askoz hobeto gaude. Politika berarekin jarraitzeko asmoa dugu: zorpetzea ekidin, gastua kontrolatzen eta ahalik eta aurrekontu zuhurrenak egiten.

Aurrekontuak aipatu dituzu. Iazkoekin alderatuta, %26ko beherakada nabarmena izan dute. Non igarriko da jaitsiera hori?

Lehenengo, jaitsiera hori zergatik izan den azaldu behar da. 2011n lurren aprobetxamenduagatik ezohiko sarrera egon zen, eta horrek eragin zuen aurrekontua normala baino handiagoa izatea. Aldiz, 2009. eta 2010. urteetakoak aurtengoaren antzerakoak dira. Aurrekontua egiterakoan, aurreko urteotako gastu eta inbertsio maila mantentzen saiatu gara; inbertsioak egongo dira, ditugun aurrezkiak erabiliko ditugulako partida berriak sartzeko.

Horren harira, Zaldibar berritzen zabiltza; noizko bigarren fasea?

Proiektua Hirigintza batzordetik pasa da, eta onartzea proposatuko dio osoko bilkurari. Bihar [eguaztena] obrak egiteko esleipen plegua pasatuko da Hirigintza batzordetik. Adostasun batera heltzen bagara, apirileko osoko bilkuran proiektua eta pleguak onartzeko proposamena aurkeztuko da, eta ekainerako esleipena eginda egongo da. Ziurrenik, ekainean bertan hasiko dira lanak.

Noizko egongo da zabalik?

Egoera ekonomikoa dela-eta, hasierako proiektutik pare bat gauza kanpo utzi ditugu: atariko egitura eta antzoki ondoan dagoen lokala aldagela bihurtzea. Bigarren fasean barruko egitura egingo da; obrek sei hilabete inguru iraungo dute. Gero, antzokia zabaldu ahal izateko, bestelako inbertsioak egin beharko dira: ekipamendu eszenografikoa, aulkiak eta hornikuntza elektrikoa. Aurrekontu totala milioi eta erdikoa da, eta milioi bat finantzatuta dago. 2013an ekipamendu horiek erosteko gaitasuna izatea espero dugu, eta, dena ondo baino hobeto baldin badoa, datorren urteko sanpedroetarako antzokia zabalik izatea espero dugu. Baina ezin dugu ziurtatu. Erabilera askotariko aretoa izango da, 158 lagunendako tokia izango duena. Eskoriatzako kultura eskaintza guztia han egingo da: kontzertuak, musika eskolakoen ekitaldiak, unibertsitateko ekintzak...

Iradokizunak jasotzeko aukera eman diezu herritarrei. Animatu dira?

Bai, hiruzpalau jaso ditugu. Bat intsonorizazioarekin lotuta dago eta beste bat irisgarritasunaren gainekoa da. Bestalde, aretoaren kudeaketa parte-hartzailea izatea proposatzen dugu; horretarako, Kultura arlotik mahai bat bideratuko da, herritar eta eragileekin osatuta egongo dena. Martxoan egindako bisita gidatuetan, horretan parte hartzeko gonbita egin genuen, eta lauzpabost lagunen baietza jaso dugu.

Atxorrotzen indusketak egiten segitzeko asmorik baduzue?

Bai. Orain dela hiru urte hasi ziren indusketak egiten, eta lan

OPOSIZIOKO ALDERDIEN BALORAZIOA ETA ALKATEARI GALDERAK

Aitor Urrutia | EAJko zinegotzia

"Informazioa falta zaigu"

"Balantzea pobrea da. Aurrekontuetan, pertsonal arloko igoera handia da, liberatuen dirua tarteko; eta zerbitzu aldetik, jaitsiera. Gainera, informazioa falta zaigu gauza inportanteen gainean, hala nola AHT eta atez atekoa".

▶ **ALKATEAREN ERANTZUNA**

"Ez nago ados. Udaleko ateak zabalik daude, eta arazoren bat baldin badu, edozein momentutan etorri ahal dira. Eskatuz gero, informazioa beti ematen da".

Atez atekoa pil-pilean dagoen honetan, herri galdeketa zuzena egitea pentsatu duzue?

"Kalitatezko parte-hartze prozesua egin nahi dugu, eta hori informazio on batekin hasten da".

Jose Luis Cantero | PSE-EEko zinegotzia

"Ekonomian ez gaude ados"

"Hasieratik herriarendako positiboak diren ekimen guztien alde egitearen aldekoak izan gara. Baina egoera aldatu egin da eta gaur egun desadostasun nabarmenak ditugu Gobernuarekin, bereziki ekonomia arloan".

▶ **ALKATEAREN ERANTZUNA**

"Bat nator; oposizioan egotea erabaki zuen eta erabakien %90 adostasun osoz hartzen ditugu. Baina ez da egia enplegua eta ekonomiaren harira ezer egiten ez dugunik".

Foru-funtsari dagokionez, zelan itzuliko diozue dirua Gipuzkoako Diputazioari?

"Otsailean %100 itzultzeko gaitasuna geneuekan. Baina lau epetan itzuliko dugu, bakoitzean %25".

Juan Luis Merino | Ezker Anitza-IUko zinegotzia

"Ez dute proiektu estrategikorik"

"Ez dago Gobernurik. Hauteskunderik egon izan ez balira eta gestoria bat edukiko bagenu, berdin funtzionatuko luke Udalak. Ez dute proiektu estrategikorik herriarendako, eta ez dituzte gura gainerako taldeen ekarpenak".

▶ **ALKATEAREN ERANTZUNA**

"Ez gara errealitate berean bizi. Jakin beharko luke gure programa kudeaketa plan bilakatu dugula, eta 200 herritarrekin egin dugula hori. Ez gara horretan geratuko".

Gaur egun 240 langabe ditugu Eskoriatzan. Noizko egingo du Udalak Enplegu Plana?

"Nor bere bidetik joan daiteke, baina emaitza eraginkorragoak dira eskualde mailan joanda".

HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

2008an Udalak galdeketa egin zuen zaharren egoitzaren inguruan; zer egin behar duzue horrekin?

"Diputazioak buruko gaitza dutenei lekua egitea exijitzen zuen, eta aurreko agintaldiak ez zuen bateragarri ikusten. Aurreko eta oraingo patronatuak egoitza dagoenetan jarraitu behar duela dio. Egoitza botako bagenu, agian ez genuke beste bat eraikiko. Bestetik, galerak daude. Lan handia egin da eta 2012rako egoitza jasangarria dela esan dezakegu. Orain, egokitzeko inbertsioak egin behar dira".

Intxaurtxuetan, errepide gaineko pasoa amaitzen den lekua urbanizatu gabe dago. Konpontzeko asmorik?

"Bidegik dauka ardura, AP-1 autobideko neurri zuzentzaileetako bat da. Diputazioarekin batzartu gara eta zuzenduko da. AP-1ko lanek eragindako neurri zuzentzaileen gaineko proiektua egiten dabiltza. Lau proiektutan dago banatuta: Maringoa eginda dago eta Apotzaga, Zarimutz eta herrigunekoak falta dira. Jarrera aldaketa egon da, eta Arabako mugaraino doan bidegorria ere aurten egiten hasiko direla esan digute. Ez genuen espero horren azkar izatea".

Telesko, Eskoriatzako telebista, askotan ez da ikusten; zerbitzu hori mantentzeko asmorik badu Udalak?

"Gogorarazi behar da Eskoriatzan ez dagoela antenarik telebista seinalerako; Telesko bidez jasotzen da. Bestetik, kanala bera dago. Otsaila ezkero aztertzen gabiltza, eta, ziurrenik, ekainerako hainbat alternatiba izango ditugu mahai gainean. Hasieran, kanal moduan jarraitzea ez dugu aurreikusten, buelta bat eman behar diogu dauden baliabideak askoz hobeto aprobetxatzeko. Ez da inbertsiorik egin, eta eskoriatzarrendako ez da erreferentea".

horien ondorio da bere garaian gaztelu izandako ekialdeko harresi baten egonkortzea. Aurten, lan horiekin jarraitzea proposatzen da; kasu horretan, hegoaldera ematen duena. Bestetik, tontorrean dagoen ermitako lurrean indusketak egingo dira. Lur horietan gauza asko aurkitu ahal izango direla uste dugu; hortaz, lurrak altxatu, indusketa lanak egin eta gero txukun utziko dugu guztia.

Bestetik, joan den urtean Eskohitza prozesua jarri zenuten martxan. Nolako balorazioa egiten duzue?

Oso positiboa. Guk geneukan programa, eta langileek egindako ekarpenen bitartez lanean hasi ginen, eta kudeaketa plana egin genuen, eta uste genuen herriari hitza ematea oso garrantzitsua zela. Herriak oso ondo erantzun zuen, 150 lagun batu ziren kiroldegian egindako ekitaldi nagusian, eta beste horrenbeste arloka egindako batzarretan. Ekarpen asko jaso ditugu, eta ahal izan ditugunak sartu ditugu kudeaketa plan horretan; oso pozik gaude egindako planarekin.

Ekarpen bat izan da haur parkeak estaltzea. Posible da?

Hirigintza eta Gazteriatik bideratuta egongo den talde bat sortzea proposatzen dugu, eta gurasoekin herriko parkeen diagnosia egin dezatela. Horretaz gainera, eskaera horri aurre egiteko, aztertzen gabiltza kiroldegian guraso eta umeei zuzendutako gela bat zabaltzea; proposamen horrek aurrera egingo duela uste dut.

Pil-pilean dagoen gaiari helduko diogu orain: hiri hondakinak. Maiatzean eroango duzue gaia osoko bilkurara, eta, gauzak aurreikusitako moduan baldin badoaz, atez ateko sistema onartuko duzue, ezta?

Hala da. Maiatzeko osoko bilkuran onartuko da. Komunikazio kanpaina jarri dugu martxan, eta, denbora irabazi gura dugunez, atez atekoaren erabakia ezohiko osoko bilkuran hartuko da, maiatzaren 31n. Egutegi eta plangintzagatik aurretik ahalik eta ekintza gehien egin ahal izateko aukeratu da egun hori. Beti esan dugu zero zabor filosofiaren alde egiten dugula, eta hori oso zabala da; atez atekoa edo hiri hondakinen sistema puntu bat baino ez da. Guk inoiz ez dugu arazorik izan eztabaidatzeko, eta Garapen batzordean ostera ere planteatu behar bada, ez dugu arazorik.

Gaiak herritarrengan kezka sortzen du. Horrelakorik sumatu duzue?

Kezkak egon badaudela badakigu. Batetik, pozten gaitu behingoz kezkatzeko moduko gai bat izatea. Hiri hondakinekin sekulako arazoa dugu, eta horri buelta eman behar diogu. Oinarrizkoena informazioa da, eta horren gaineko plangintza egin dugu: datozen hilabeteotan hitzaldi, tailer, erakusketa eta herri batzarrak egingo ditugu.

Ezker Anitzarekin adostu duzue, herritarrekin batera, sistemarik onena zein den erabakitzea...

Bai. Mozioaren lehen puntuak dio %70tik gora birziklatzea bermatzen duen sistema baten alde egingo dugula. Prest gaude eztabaidatzeko, beti helburu hori beteta. Hasiera batean, datuak hartuta, portzentaje hori bermatzen duen sistema bakarra atez atekoarena da.

Jai giroko galderarekin amaituko dugu. Leintz Gatzagarekin batera Mundumira egingo duzue maiatzaren 18tik 20ra bitartean...

Hala da. Leintz Gatzaga txikia da, eta Eskoriatzari antolatzeko laguntza eskatu zionean, gu prest agertu ginen. Oso pozik gaude. Ekimen jendetsuenak hartzearekin batera, bisitarien mugikortasunean laguntzeko dugu. Errepidea itxi eta autobusak ibiliko dira asteburu guztian bi herri artean.

"Orain dela lau urteko egoerarekin alderatuta, askoz hobeto gaude"

"Kiroldegian guraso eta umeendako gela bat zabaltzea aztertzen gabiltza"

"Arabako mugaraino doan bidegorria ere aurten egiten hasiko dela dio Aldundiak"

Visesak garaje libreak jarri ditu salgai Arbiñosteko etxebizitzetan

M.B. | ESKORIATZA

Garajea erosteko asmoa dutenek Arbiñoste kaleko 1, 2 eta 3. zenbakietan dituzte salgai. Visesak jarri ditu salgai garaje-partzela libreak jabetza osoan. Jakinarazi dute garajeak bakarrik edo trastelekuarekin eros daitezkeela.

Prezioei dagokionez, garajeak 18.470 eurotik 23.289 euro artean salduko dira (BEZ barik) eta garajeak trastelekuarekin, ostera, 31.217 eurotik hasita (BEZ barik). Zabalerari buruzko informazioa ere helarazi dute Visesatik: garajeak 23,48 eta 29,48 metro koadro artekoak dira; trastelekua dutenek, berriz, 24,74 metrotik gora dituzte eta trastelekuak, 12,97 metro koadro.

Informazio gehiago gura dutenek Visesarekin jarri behar dute harremanetan. Hiru bide dituzte: Donostian, Pinaren plazako 1. zenbakian duen bulegoetara joatea; 943 32 63 40 telefono zenbakira deitzea; edo *donostia@visesa.com* helbide elektronikora posta bidaltzea.

Apirilaren 3a baino lehen eman behar da izena Amuskak gertatutako joskintza ikastaroan

Amuska emakumeen elkarteak joskintza ikastaroa antolatu du ostera ere: apirilaren 16tik ekainaren 18ra bitartean izango dira eskolak, astelehenetan, 18:00etatik 20:00etara. Prezioari dagokionez, Amuskako bazkideek 32 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 47 euro.

Interesa dutenek apirilaren 3a arte dute izena emateko aukera, Euskadiko Kutxaren 3035 0044 85 0441021091 kontuan dirua sartuta; izen-abizenak ere zehaztu behar dira horretan.

Xabier Leteren omenezko ekitaldia dago gaur gauean

Unibertsitateak hileko azken egubakoitzeko ikuskizuna hartuko du gaur. Jon Sarasuak *Leteaz kantuberbetan* emanaldia eskainiko du, 22:30ean. Hain justu, Xabier Lete zenari omenaldi sentitua eskainiko dio aretxabaletarrak, haren poesiak eta kantuak abestuta eta errezitatuta. Debalde izango da horretarako sarrera.

Udaberriko kontzertua egingo dute bihar, 20:00etan, parrokian

Urtero moduan, herriko musika bandak udaberriko kontzertua eskainiko du bihar, 20:00etan, parrokian. Pieza hauek joko dituzte: P. Artolaren *Gloria al Pueblo*, F. Von Suppéren *Caballeria Ligera*, Jan de Haanen *Orlando Suite*, Norman Tailorren *Country & Western* eta *Elmer Bernstein's Jazz Selections*.

OHARRAK

TAILERRA LUDOTEKAN

Gaur eskumuturrekoak egiten ikasiko dute bazkide zein bazkide ez diren neska-mutikoek Tortolis ludotekan, 18:00etan.

KIROL HITZORDUAK

Norgehiagoka bi jokatuko dira bihar Manuel Muñoz kiroldegian: 16:00etan, gazteen mailan, Eskoriatza eta Bera Bera Anoeta taldeen arteko saskibaloi partidua hasiko da; eta 18:00etan, areto futbolean, Euskal Liga jokatuko dute Eskoriatzak eta Mamarigakok.

HIRUGARREN AZTERKETA

Obra Publikoetako Ingeniari Tekniko lanposturako hurrengo azterketa apirilaren 16an izango da, astelehena.

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI
Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa,
inyektoreen konponketa eta I.A.T. aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 40 10 • Faxa: 943 71 31 45

Tellamendiko lursail zati handi bat kiskali zuen suak astelehen gauean

500 bat metro zabalerako su-frontea sortu zen; bada, eragindakoa izan zen susmoa dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Sutea piztu zen astelehen gauean Tellamendin. 20:30 inguruan piztu zen eta suhiltzaileek 22:30erako-edo lortu zuten sua kontrolpean izatea. Hala ere, 01:00 aldera arte jarraitu zuten lanean. Gaua ondo sartu arte suhiltzaileen kamioia Gantzaga auzora jaitsi zen ur gehiagoren bila –beheko argazkian– eta gauerdi aldean oraindik ere lanean ziharduten.

Udal iturrien arabera, zenbait udal ordezkari eta hainbat herritar ere Arabako Diputazioko suhiltzaileei laguntzen aritu ziren. 500 bat metro zabalerako su-frontea ikus zitekeen Aramaioko hainbat tokitatik. Eta ez hori bakarrik: sutearen tamaina handiaren adierazle izan zen sugarrak Arrasatetik ere antzeman zitezkeela –ikus goiko argazkia–. Lursail zati handi bat erabat kiskalita utzi zuen suteak, Lugorri mendiko maldak, bereziki.

Sute garrantzitsua izan zen, sugarrak Arrasatetik ere ikusten ziren-eta. | JAVIER BENGOA

Suhiltzailea, ura betetzeko lanetan, abiada bizian. | JONE INUNTZIAGA

Eragindakoa izan zen?

Sutea zerk eragin zuen oraindik argitzeke badago ere, suhiltzaile, Diputazioko basozain eta ertzainen susmoa da sua nahita piztu zuela norbaitek. Ramon Ajuria alkateak honakoa kontatu digu: "Bi mihi ikus zitezkeen, baina erdi paretik ezer ere ez, eta hori nahiko susmagarria da. Gainera, antzerako zerbait gertatu zen leku berean duela 20 urte inguru". Suak zenbaterainoko lursaila erre duen zehazten ez du jakin, baina "eskerrak pinudiak ez diren kiskali", azaldu du. Gantzaga auzokoek kezkaz, harriduraz eta ikusminez jarraitu zuten sutea eta berau itzaltzeko prozesua.

Aramaioko 'Herrira' aurkeztuko dute gaur iluntzean plazan

Euskal presoen eskubideen aldeko azken egubakoitzeko elkarretaratzearen ondoren –19:30ean hasita, ohi baino laburragoa egingo dute– Aramaioko *Herrira* taldea aurkeztuko dute gaur, 19:45 aldera. Taldearen nondik norakoak azaltzeaz gain, Aramaiorako dituzten helburuak plazaratuko dituzte, eta herritar guztien parte hartzea eta konpromisoa eskatu. Azkenik, aurkezpenaren deitzaileek jakinarazi dute jatekoa eta edatekoa egongo dela.

Bertso abenturarako izen-ematea luzatu egin dute, gaur arte

Aurten ere Sarriako bertso barnetegiak ez du hutsik egingo. Apirilaren 10ean, 11n eta 12an. Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetako ikasleei dago zuzenduta eta antolatzaileek erabaki dute izen-ematea gaur arte luzatzea. Nola eman behar den izena? Bada, izena emateko fitxa beteta, osasun txartelaren kopia eta 40 euroko ordainketa ziurtatzen duen bankuko egiaztagiria entregatuta. Argibide gehiagorako, deitu udaletxera: 945 44 50 16.

Julen Arriolabengoa | Hizkuntzalaria

"Euskal ahozko tradizioa oso aberatsa da, horrekin gozatu egin behar dugu"

Apirilaren 2an hitzaldia egingo du kultur etxean (18:30), Txirritola euskara elkarteak antolatuta

J.B. | ARAMAIO

Txirritola euskara elkarteak beste ekimen bat jarriko du martxan laster. Hainbat gaitan aditu diren aramaioarrei protagonismoa ematea du helburu, gainerako herritarren artean euren ezagutza parteka dezaten. Lehen saioan Julen Arriolabengoa (Aramaio, 1960) arituko da: kantu zaharrak eta memoria historikoa uztartuko ditu. Apirilaren 2an izango da, kultur etxean (18:30).

***Memoria historikoa kantu zaharretan* jarri diozu izenburu zure saioari. Zertaz arituko zara?**

Kantu zaharrak irakurriko ditugu. Aurkezpen txiki bat egingo dut, irakurriko ditugun kantuak zergatik aukeratu ditudan azaltzeko. XVI. mendea baino lehenagoko kantuak aztertuko ditugu, batez ere Aramaio eta inguruko herriekin zerikusia duten abestiak. Esaterako, Arrasateko erreketaren gaineko kantuen gainean arituko gara.

Memoria historikoa oso termino orokorra da. Noizko kantuak diren zehazterik bai?

Memoria historikoaz ari naiz, baina ez azkenaldian horren modan dagoenaz, hots, 36ko gerraren memoriaz. Historian zehar, besteak beste, bertsolaritzak lekukotasuna jaso duela ikusiko dugu. Karlistaldietan eta XX. mende hasieran, esaterako, sekulako uzta dugu. Egun ere bertsolaritza gizartearen isla da. Horrek guztiak garamatza ikustera euskal ahozko tradizioa oso aberatsa dela, eta aberastasun horrekin gozatu egin behar dugula.

Julen Arriolabengoa. | J. ARANTZABAL

Ahozko literaturak garrantzi handia dauka, beraz.

Nire ustez, sekulakoa, lekukotasun historikoa gordetzen duelako. Arkeologoek harriak eta bestelako materialak aztertzen dituzten moduan, historialariek kantu horiek aztertu beharko lituzkete. Era berean, euskal kantu zahar horiei leku polita utzi diete euren diskografian.

Txirritolaren gonbidapenak harritu egingo zintuen...

Gustu handiz jaso nuen gonbidapena, baina, egia esan behar badut, nahiko arraroa egingo zait herritarren artean halako kontuez berba egitea. Ea, bada, ondo doan.

Haurrek eta gurasoek Gasteizko izotz pistara egindako irteeraren talde-argazkia, hilaren 25ean. | AIZPEA AJURIAGERRA

Guraso elkartearen patinaje ikastaroa: denok gustura, eta errepikatzeko asmoz

J.B. | ARAMAIO

Martxoaren 25ean Gasteizko izotz pistan egindako saioaren ostean, amaitu da guraso elkarteak antolatutako patinaje ikastaroa. Antolatzaileen arabera, azken irteera horretan ere oso ondo pasatu zuten, eta datorren urterako errepikatzeko gogoz geratu dira. Gainera, gurasoen eta haurren irakasle lanetan aritu direnei eskerrak eman gura dizkiete: "Eskerrik asko, Agustin, Ainhoa, Garazi, Oihan, Sara eta Alaitz".

Harremana sendotzen

Gasteizera egindako irteeraren aurretik hiru saio egin zituzten kiroldegian. Helburu nagusia da patinajea aitzakia hartuta gurasoen eta haurren arteko harremana sendotzea.

ELGETA

Apirilaren 24an 75 urte Elgetako frontea jausi zela

Apirilaren 22an egingo den ekitaldian parte hartzeko dei egin du Udalak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

1937ko apirilaren 24a eta 25a amesgaizto ahaztezina izan dira urteetan elgetar askorendako; frontea jausi, tropa frankistak Elgetan sartu, eta sekulako sarraskiak egin zituzten herrian —bortxaketak, hilketak...—. Laster beteko dira 75 urte, eta denbora honetan guztian ez du inork ez damurik erakutsi ez barkamenik eskatu.

2010eko maiatzean inauguratu zen Intxortako ibilbide tematikoa. | A. EZKIBEL

Eskaera zuzena

Elgetako udalbatzak eskaera zuzena egin die Espainiar, Alemaniar eta Italiar gobernuei; "erantzukizuna eta egiletza onar dezaten", eta "Elgetako herritarrei jendaurreko barkamena eska diezaieten". Eskaera hori egitea aho batez onartu du udalbatzak asteon egindako osokoan.

Idatzi batean Udalak bere desadostasuna agertu du gerrako biktimek izandako tratamenduarekin, eta egia isilarazteko frankismotik gaur egun arte nagusi izan den isiltasunaren aurrean. Bestalde, eskerrak ematen dizkie "gogoz eta behartuta Elgeta garbitzen eta berreraikitzen lagundu zuten guztiei, bereziki lan batailoietako kideei, eta esklabo gisa erabili zituzten preso errepublikazaleei".

Ekitaldia apirilaren 22an

Urteurren seinalatua ez da Elgetan oharkabean pasako. Udalak apirilaren 22rako iragarri du ekitaldi nagusia eta biktimen senitartekoak eta herritarrez gain Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko zein memoria historikoa berreskuratzeko lanean diharduten elkarteen ordezkariak ekitaldi horretan egotea eskatu du.

ESANAK

Egiletza onartu eta jendaurreko barkamena eskatu ditu Udalak

Bisitak domeka oro

Apirilean, bestalde, domeka oro egingo dituzte gidatutako bisitak Intxortako lubakien gunera. Ohikoa den moduan 10:00etan abiatuko dira bisitok Espaloiko Interpretazio Gunetik. Interesatuek 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 telefono zenbakietara deitu behar dute, edo turismo@elgeta.net helbidera idatzi.

Lubakiak auzolanean

Eta biharko, martxoak 31, lubakien gunea auzolanean txukuntzeko dei egin du Udalak. Garbiketa lanak egingo dituzte, eta lubakien eremuan apurtuta dauden zakuak aldatuko dituzte. Taldea 09:00etan abiatuko da Asentziorantz.

Aspaldi honetan txakurren gorozkiekin burutu ezinik

Egoera desatsegina izatetik onartezina izatera pasa dela adierazi du Oxel Erostarbe alkateak

L.Z. | ELGETA

Brigadako langileak parkeetako belarra mozten hasi diren honetan jo du alarmak; guztia dago kakaztuta. Bandoa ateratzeko erabakia hartu du alkateak. Hala, herritar guztiei jakinarazi nahi die legeak ezarritako betebeharrak dituztela txakur jabeek, eta salaketak ipin daitezkeela.

Legez kontrakoak

Legeak jasotzen du herri barruko eremu publiko guztietan txakurrek lotuta joan behar dutela beti —gehienez bi metroko luzera duen uhalarekin—, eta txakur batek eragindako kalteen erantzulea jabea dela —nahiz eta txakurra galduta edo ospa egin-da egon—. Modu berean, txakurraren gorozkien erantzulea jabea da, eta jaso egin behar ditu beti. Lege-hausteren baten froga izanez gero, salaketa ipin daiteke.

IV. FRONTENIS TXAPELKETA

AURREKO JARDUNALDIKO EMAITZAK

Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Ibon Untzetabarrenetxea-Jon Irazabal	25-24
Idoia Elkoro-Enrike Elkoro / Idoia Serna-Asier Osoro	25-09
Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo / Maite Mandaluniz-Jabier Larrañaga	25-08
Andoni Elortza-Eneko Maguregi / Mikel Zubiaurre-Danel Cusi	atzeratua

PARTIDUAK BARIKUAN, MARTXOAK 30, 18:30EAN

Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Oskar Sarasua-Santi Dosuna

Andoni Elortza-Eneko Maguregi / Mikel Zubiaurre-Danel Cusi

PARTIDUAK ZAPATUAN, MARTXOAK 31, 15:00ETAN

Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Iban Retolaza-Xabier Ubera

PARTIDUAK DOMEKAN, APIRILAK 1, 10:30EAN

Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo / Idoia Serna-Asier Osoro

Idoia Elkoro-Enrike Elkoro / Iune Dosuna-Santi Dosuna

Andoni Elortza-Eneko Maguregi / Mikel Zubiaurre-Danel Cusi

OHARRAK

PRESOEN ALDEKO ELKARRETARATZEA

Hileroko azken barikutan egin ohi den moduan, euskal preso politikoen aldeko elkarretaratzea egingo dute gaur, martxoak 30. Herriko Plazan izango da elkarretaratzea, 20:00etan hasita. Ordu erdiko iraupena izango du.

DINAMIZATZAILEA KZGUNEAN

Astelehenean, apirilak 2, KZgunean izango da Eli Modrego dinamizatzailea 09:00etatik 13:00etara. Gogoratu behar da gela hori erabilgarri dagoela asteko gainerako egunetan ere. Interesatuek liburutegian eskatu behar dute giltza.

L.Z.

Hondakinak nonahi iristen dira

Horregatik, hondakin gutxiago sortzea posible dela erakusten du Mankomunitateak egunotan antzokian ikusgai duen *Hondakin gutxiago, ongizate gehiago* izeneko erakusketak. Egunerokoan egiteko moduko aldaketa txikiak proposatzen ditu; iturriko ura edateak botilako ura edateak baino hondakin gutxiago sortzen du, janaria ez da zaborra, eta ez zikintzea hobe da garbitu beharra izatea baino.

LEINTZ GATZAGA

Domekan hasiko dira jokatzen pilota txapelketaren bigarren fasea

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gatzagako pilota txapelketaren bigarren kanporaketa hasiko dute datorren domekan, apirilak 1. Txapelketa otsailaren 26an hasi zuten eta lehenengo fasea dagoeneko jokatu dute, zazpi mailatan banatuta.

Bigarren kanporaketa hori orain arte sailkatu diren bikoteek jokatuko dute. Hona: seniorretan, Eskoriatzakoek Elorriokoen aurka; eta Amurriokoek Arrasatekoen aurka; gazteen artean, Gasteizkoek (Zaramaga) Amurriokoen aurka; eta Arrasatekoek Gasteizkoen (Lakua) aurka. Kadeteen artean, ostera, Aramaiokoek jokatuko dute Elorriokoen aurka; eta kimuetan, Legutiokoek Elorriokoen aurka; eta Eskoriatzakoek Gasteizkoen aurka (Zaramaga). Pilota saioa bukatzeko (12:30) benjaminen arteko hiru partidu izango dira: Arrasate B Aramaio B bikotearen aurka; Aramaio A Gasteizen aurka (Lakua); eta Bergara Aretxabaletaren aurka.

Pilota txapelketaren antolatzaile den Mauri Zubillagak adierazi du orain arteko domeketan legez, giro ezin hobea izango dela Gatzagan apirilaren 1ean ere, bai pilotaleku inguruan, bai kaleetan.

Arrikrutzeko kobak ezagutu eta Oñatin bazkalduko dute bihar Gureleko kideek

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteko hainbat kide, 20 inguru ume eta helduen artean, Oñati aldera joango dira bihar. Udaberriko lehenengo irteera izango da eta Arrikrutzeko kobak ezagutuko dituzte. Nor bere automobilean joango da (10:00), eta, kobak ezagutu ondoren, Oñatin bertan bazkalduko dute.

Loreen Eguna apirilean

Aste Santuko oporretatik bueltan, ostera, Loreen Eguna egingo dute. Data zehatzik ez dute jarri, baina apiril bukaeran izango dela iragarri bai, eguraldi ona izango dela ziurtatu guran. Udaberriko landare eta loreekin apainduko dituzte herriko kale, plaza eta gainerako bazterrak.

Iglesias, Deportes Ferrer taldearen kontra jokatutako partiduan. | JULIO CALLEJA

SASKIBALOIA

EBAri baino gehiago, aro bati esango dio Natra-Oñatik agur

Lau urte ikusgarri bizi ostean Oñatiko taldeak EBAko azken partidua jokatuko du etxeko zaleen aurrean

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Ipuin guztiek izaten dute, lehenago edo geroago, agur bat. Hala, Oñatiko saskibaloi taldearen agurra ez –ezta gutxiago ere– baina biharko partidua bai izango da azken urte hauetan bizitakoaren agurra, saskibaloi aro baten amaiera: "Duela lau urte batu ginenean urtebetez jokatzen jarraitzeko asmoa zuen taldearen %80k, eta ikusi noraino iritsi garen", adierazi du azken denboraldia gogorra egin zaiola onartzen duen Xabi Igartuak. Hori du geroago eta gorago jokatzeak, exijentzia maila handitu egiten dela, urtea gogorrago bilakatzen dela, buruhauste gehiago...

Diogun moduan, saskibaloi aro hau jaitsiera batekin amaituko dute: "EBAn lehiatzeko gauza garela erakutsi dugu, baina ez partiduak irabazteko. Balorazioak egiteko ordua iritsiko da, lau urteen balorazioa oso ona izan da, azken urte honek penaz utzi gaitu, baina kantxa barruan nahi genuena lortu ez dugun arren herrian saskibaloi giro polita sortu dugula uste dut, zaleek zelan erantzun duten, gazteak saskibaloira gerturatu direla ikusi...

Zornotzaren kontra

Zornotza izango da EBA mailan Zubikoa bisitatuko duen azken taldea: "Talde horrek dagoeneko eutsi dio kategoriari, eta egia da han erraz irabazi zigutela, baina lehiatzera irtengo gara".

Barbero Seky.es taldearen kontra. | J.ARANTZABAL

Jaitsiera faseko hasiera bikaina berretsi nahi du MUk

Segurua da jaitsiera fasean aurrean sailkatzen diren bi taldeek kategoriari eutsiko diotela, eta Arrasateko taldeak hiru partidu behar izan ditu postu horietara asko gerturatzeko –Lizuan eta Araberri daude aurretik–. Joan den astean Biok Zerbitzuak taldearen kantxan irabazita beste aurrerapauso bat egin zuten Josu Larreategiren mutilek, eta hirugarren daude orain; baina hemen, etxeko partiduak dira benetan garrantzitsuak. Hala, bihar, 18:00etan, San Inazioren kontra beste partidu garrantzitsu bat jokatuko du MUk (18:00etan).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

LEHENENGO MAILA
Reala-Rayo Vallecano
Domeka. 21:30. Anoeta.

GAZTEEN EUSKAL LIGA
Aretxabaleta-Hernani
Zapatua. 16:15. Ibarra.

OHOREZKO ERREGIONALA
Bergara-Roteta
Zapatua. 17:00. Agorrosin.
Mondra-Aloña
Zapatua. 16:30. Mojategi
Aretxabaleta-Berio
Domeka. 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Intxurre-Aretxabaleta B
Zapatua.16:30. Elorri.
Eibartarrak-Antzuola
Zapatua. 15:30. Unbe.

ERREGIONALA, IGOERA
Mondra B-Allerru B
Domeka.16:00. Mojategi.

LEHEN ERREGIONALA, KOPA
Ontzerri-Aretxabaleta C
Domeka.11:00. Andoain.

GAZTEEN OHO. IGOERA FASEA
Ostadar-Bergara
Zapatua.13:00. Michelin.
Lagun Onak-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Garmendipe.

GAZTEEN OHO. KOPA ETA JAI.
Mariño-Mondra
Zapatua.17:30. Irun.

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA
Bergara B-Aretxabaleta B
Domeka.18:00. Ipintza.
Eibartarrak-Aloña Mendi B
Domeka. 16:30. Garmendipe.
Arizmendi-Eibartarrak B
zapatua. 16:00. Almen.

OHOREZKO KADETEAK, IGO.
Aloña Mendi-Aretxabaleta UDA
Zapatua.11:15. Azkoagain.
Bergara-Orioko
Domeka. 12:00. Ipintza.

KADETEAK, IGOERA
Real Union B-Arrasate
Zapatua.12:30. Irun.

KADETEAK, KOPA
Aloña Mendi-Arizmendi
Domeka.13:00. Azkoagain.
Soraluze-Arrasate B
Zapatua. 11:30. Ezozia.
Antzuola-Eibartarrak
Zapatua. 16:00. Estala.
Bergara B-Aretxabaleta B
Domeka. 16:15. Ipintza.

EMAKUMEZKOAK, IGOERA
Arizmendi-Arrobi Berri
Zapatua.18:00. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza-Mamarigako
Ordua zehazteke.

GIPUZKOAKO BIGARREN M.
Power Rangers-Aretxabaleta
Gaur. 19:30. Oiartzun.

SENIOR NESKAK
Azpeitiko-Arizmendi
Zapatua. Ordua zehazteke.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Soraluce BKE-Corazonistas
Zapatua. 18:00. Labegaraieta.
Ford Mugarri-Deustuko Uniber.
Domeka. 11:30. Iturripe.

EMAKUM. PREFERENTEA
Aloña Mendi-Egia Bera Bera
Gaur. 19:45. Zubikoa.

LEHEN TERRITORIALA
Izarraitz Taberna-Tolosa
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

GIPUZKOAKO KOPA
Talleres Ondo-Arrasate
Zapatua. 19:15. Legazpi.

FORU ALDUNDIKO TORNEOA
Bartolo jat.-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Zarautz.

FORU ALD. KADETE
Aloña Mendi-Aluminios Alem.
Zapatua. 12:15. Zubikoa.
Bartolo B-Aloña Mendi B
Zapatua. 13:00. Antoniano.

SASKIBALOIA

EBA
Natra Oñati-Zornotza
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

LEHEN NAZIONAL MAILA
MU-San Inazio
Zapatua. 18:00. Iturripe.

LEHEN SENIOR GIZONEZK.
Leihoak Zast-Soraluce BKE
Zapatua. 18:00. Zarautz.

BIGARREN SENIOR GIZONE.
Errotaundi-Aloña Mendi
Domeka. 17:00. Azpeitia.

HIRUG. SENIOR GIZONEZK.
MU B-Katu Kale
Zapatua. 16:00. Musakola.

SENIOR EMAKUMEZOAK
Easo-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.

GAZTEAK GIZONEZKOAK
Oiartzun-Aloña Mendi
Zapatua. 10:30. Oiartzun.
Easo-Soraluce Bergara
Zapatua. 16:00. Donostia.
Oiartzun-Aloña Mendi
Zapatua. 10:30. Oiartzun.

GAZTEAK EMAKUMEZKOAK
Eskoriatza-Bera Bera
Zapatua. 16:00. Manuel Muñoz.

PILOTA

BERGARAN
Egubakoitza. 19:00etan hasita
Udaberri barruan: Bergara-Ilunpe

ANTZUOLAN
Zapatua. 17:00etan hasita
Gipuzkoako zesta punta barruan, alebinak: Zumaia 2- Zumaia 1

JOSETXO ARANTZABAL

SORALUCE BKE-K PARTIDU ERABAKIKARRIA
Kategoriari eusteko bergararrek puntu bat behar dute, atzetik Urduliz estutzen dator-eta. Corazonistas hartuko dute bihar.

ESKUBALOIA

Soraluce BKE, mailari eusteko behar dituen puntuen bila

Corazonistas taldearen kontra jokatuko du Soraluce BKEk zapatu arratsaldean Labegaietan (18:00). Bergarakoek ligako azken partiduan puntu bat behar dute mailari eusteko, Urdulizek zer egiten duen begira egon barik. Ligako lider Ford Mugarrik, bestalde, Deustoko Loiolaren bisita izango du domeka goizean Iturripen (11:30).

MENDIA

Aurten ere parapente lasterketa egingo dute Aloñako Igoeran

Apirilaren 22an egingo dute Aloñako Igoera, eta dagoeneko zabalik dago izen-emate epea. Iazko esperientziatik abiatuta, aurten ere parapente pilotuek ere parte hartu ahal izango dute proban, nahiz eta iaz haize zakarrak bertan behera utzi zuen proba hori. *Aloina.net* atarian eman dezakezue izena.

FUTBOLA

Mondrak eta Aloñak derbia, UDAk eta Bergarak ere etxean

Oraingo asteburuan bailaran jokatuko dituzte ohorezko erregional mailako partidu guztiak. Mondrak eta Aloñak derbia jokatuko dute bihar Mojategin (Ikus 12. orria). Aretxabaletak Berio hartuko du domekan Ibarran (16:30), eta Bergarak Totetaren kontra jokatuko du bihar Agorrosinen (17:00).

FUTBOLA

Infantil mailako Debagoiena Txapelketa, hilaren 14an hasita

Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian jokatuko dute apirilaren 14ko eta 15eko asteburuan infantil mailako Debagoiena Txapelketa. Torneo hori Smash enpresak antolatu du, UDArekin elkarlanean. Apirilaren 14an ligaxkako partiduak jokatuko dituzte, eta hurrengo egunean partidu erabakigarriak.

TENISA

Aste Santuaren ostean hasiko dute Udaberriko Tenis Txapelketa

Oñatin gertu dute aurtengo Udaberriko Tenis Txapelketa, Aloña-Mendi Kirol Elkarteko teniseko sailak eta Zubikoa kiroldegiak antolatuta. Apirilaren 16an hasiko dute torneoa, eta dagoeneko zabalik dago izenemate epea. Prezioak: 12 euro abonatuendako, eta 18 euro gainerakoendako. Informazioa: *Oinati.net*

Jatetxe Gida

Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

Eskaintza
- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

Egunero zabalik.

Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza
- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.

Garaia jatetxea

Garaia Berrikuntza Gunea / Goiru kalea 1 / ARRASATE
Tel.: 943 71 02 28 / 647 83 23 86
ostalaritza@grupogureak.com

Eskaintza
- Self-service bazkari merkeak.
- Urtebetetzeak
- Taldeentzako eta ospakizunentzako bazkari eta afariak.
- 160 pertsonarentzako jangela
- Aparkalekua eta terraza

Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
Tel.: 943 53 32 72
www.errekajatetxea.eu

Eskaintza
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita

Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35 / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
www.restaurantelasa.es

Eskaintza
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomia 2009.

Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
Tel.: 943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita

KULTURA

Ez dok Amairu berritua

- Xabier Lete gogoan, 'Sortuko dira besteak' kantaldia izango da bihar Arrasaten
- Ikuskizun kolektiboa da, "Ez dok Amairu bezala", Arbelaitz antolatzailearen arabera

USOA AGIRRE | ARRASATE

Xabier Lete gogoan emanaldi-bira abiapuntutzat hartuta, *Sortuko dira besteak* izeneko kantaldi zikloa hasiko dute bihar, zapatua, 19:00etan, Arrasateko Amaia antzokian. Eñaut Elorrieta, Mikel Urdangarin, Alex Sardui, Pier Paul Berzaitz, Arantxa Irazusta, Petti eta Amets Arzallus arituko dira kantuan. Besteak beste, Xabier Leteren abestiak berreskuratuko dituzte kantariek, bakarka eta taldeka.

Joan den urteko ikuskizuna berritu beharra zegoela esan digu Joxeanjel Arbelaitz antolatzaileak, eta horregatik, beste ikuspegi bat izango du bigarren kantaldi zikloak: "Xabierri omen egiten zaio, baina zati batean. Kantari gazteagoak dira eta lehengo eta oraingo belaunaldien artean egiten da zubia; lehendik geratzen dira Pier Paul Berzaitz eta Arantxa Irazusta, eta horiekin batera oraingo kantari gazte onenetakoak daude". Abeslariekin batera jardungo duten musikari gehienak aurreko biran ibili zirenak dira: Asier Oleaga, baterian; Joxan Goikoetxea, musika zuzendaritzan; Xanet Arozena, gitarra elektriko eta akustikoarekin; Txema Garces, baxuarekin; Miren Zeberio, biolinarekin; eta Maider Zapirain, biolontxeloan.

Eñaut Elorrieta eta Mikel Urdangarin kantuan, Leteren omenez Irunen egindako kontzertuan. | DANI BLANCO

Taldeko lana

Aurreko birako kontzertuekin alderatuta, kontzeptu ezberdina landu nahi izan dute oraingo honetan. Arbelaitzek esan digunez, taldeko lana izango da: "Ikuskizun kolektiboa izango da; Ez dok Amairuren antza du, taldelana izateaz gain, kontzertuz kontzertu berritzen joango baita". Aurretik lan handia dagoela azaldu digu Arbelaitzek: "kanta batzuk bakarka abestuko dituzte, baina taldean izango dira kantu asko".

Kontzertua "oso ederra izango da", Arbelaitzen hitzetan: "Jende askoren bihotza mugituko duela uste dut; Euskal Herri euskaldun eder bat irudikatzea da helburua".

Bertso berriak

Amets Arzallus bertsolariak Letek ekarritako *Foruen alde* bertsosorta eta bertso berri batzuk kantatuko ditu: "Foruen alde jarritako bertsoak XIX. mendekoak dira. Garai hartako gatazkaren kontura idazten da eta esportagarria da denboran gaur egunera. Interesgarria da gaur eguneko ikuspegitik orduko gatazkaren hitzak entzutea".

Arzallusen ustez bertsogintzari ekarpen handia egin zion Xabier Letek eta ikuspegi horretatik begiratu nahi izan dio: "Lete poeta, idazle eta kantari bezala asko famatu da eta famatuko da, baina ez nuke ahantzia utziko bere bertsogile sen hori eta bertsotarako sormen hori".

'Izarren hautsa'

Ken Zazpi taldeko Eñaut Elorrietak *Izarren hautsa* abestia taularatuko du. "Euskaldunok oso barruan daukagun kantua da eta gauza asko esaten dizkigu", aitortu digu. Horrez gain, kontzerturako propio egindako abesti berri bat ere eskainiko du, Leonard Cohenen doinu batean inspiratuta eta Joseba Sarrionandiaren letrarekin. Elorrietak azaldu digunez, Xabier Leteren poesiak izan du bere lanean eragina eta igartzen da hori Ken Zazpiren zenbait kantutan ere.

ESANAK

"Euskal Herri euskaldun eder bat irudikatzea da helburua"

J. A. ARBELAITZ | ANTOLATZAILEA

'Xabier Lete gogoan' arrakastatsua

Joan den urtean Leteren omenezko kontzertuak egin ziren Euskal Herriko zenbait herri eta hiritan. Besteak beste, Arantzazuko santutegian egin zuten *Xabier Lete gogoan* kantaldia, aretoa goraino beteta zela. Leteren abestiak interpretatu zituzten bira hartan Antton Valverdek, Pier Paul Berzaitzek, Erramun Martikorenak, Pettik eta Joxean Artzek. Bira berrian belaunaldi gazteagoaren esku egongo da Leteri egindako omenaldia.

KAMISETA
DANBAKA
musika lehiaketako kamiseta.

IPUINAK UMEENTZAT
PAMIELA
argitaletxearen ipuinak umeentzat.

PUZZLEAK UMEENTZAT
IKASTOLEN ELKARTEAren
puzzleak umeentzat.

KAMISETA + POLTSA
SKUNKFUNK
etxeko kamiseta eta poltsa.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

Zuretako nahi? Adi astelehenean!

goienakluba 2012

Tel.: **943 25 05 05** | e-posta: *kluba@goiena.com* | *goienakluba.com* | Urteko kuota: **50 €**.

Gabonetan ere eskaini zuten kontzertua. | EDORTA AYASTUY

Musikarekin datoz Aste Santuko oporrak

Arrasate Musikalek azken bi kontzertuak eskainiko ditu gaur, oporrei ongietorria emateko

MIRYAM GALILEA | ARRASATE

Aste Santuko oporrak gainean ditugu, eta, horiek iritsi baino lehen, hainbat kontzertu eskaini nahi izan ditu Arrasate Musikalek, ikasitako guztia, bide batez, herriari aurkezteko. Bada, egun hauetan lau kontzertu eskainiko dituzte, eta azkeneko biak gaur bertan izango dira, arratsaldean.

Hain zuzen ere, tronboi, tuba eta bonbardino ikasleek kontzertua eskaini zuten martitzenean eta biolin ikasleek emanaldia egin zuten eguaztenean. Horrela, azken biak gaur arratsaldean izango dira, Kulturaten eta Arrasate parrokian.

Lehenengoa kulturaten izango da, 18:30ean, eta bertan, hainbat instrumenturen hotsak entzuteko aukera izango dugu. Guztira, 20 ikasle baino gehiago izango dira kontzertu horretan eta 22 obra joko dituzte. Metal talde txiki, biolin, piano, akordeoi, oboe, biola eta kontrabaxuen soinuaz gozatzeko aukera zabalduko dute Arrasate Musikalekoek, Beethoven, Pachelbel, Tchokov, Chapman eta Lertxundiren abestiak interpretatuta, eta herrikoiak ere egongo dira.

Bigarren kontzertua eta azkena 19:30ean izango da Arrasateko parrokian, mezaren ostean, Arrasate Musikaleko biolin, biola eta biolontxelo joleekin. Biolinekin Eider Gonzalez, Maider Altzola, Josebe Gomez eta Paula Herz izango ditugu; biolak Laura Balantzategik eta Amaia Garrok (irakaslea) joko dituzte; eta biolontxeloa Irati Erastorbek joko du. Hain zuzen ere, bi pieza eskainiko dizkigute: G.F. Telemann-en *Re mayor kontzertua* eta Corelle-ren *Concierto Grosso op6, 8. zenbakia.*

Zea Mays taldearen kontzertua gaur gauean Oñatiko gaztetxean

M.G. | OÑATI

Gaur 23:00etan Zea Mays taldea ikusteko aukera izango dugu Oñatiko gaztelekuan. Bilboko taldea *ERA* azken diskoa zuzenean aurkeztera dator.

Otsaileko Kukutzaren aldeko astean egitekoa zen kontzertua, baino, azkenean, hilabete geroago izango da; hala ere, indartsua eta emozioz beterikoa eskaintzeko asmoz datoz.

Euskal Herriko ia areto eta agertoki guztietatik pasatu eta gero, Oñatiko gaztelekuan izango dira oraingoan. Sarrerak dagoeneko salgai daude 6 euroren truke Oñatiko Boga, Aker eta Xagu tabernetan. Ateak kontzertua hasi baino ordu erdi lehenago zabalduko dituzte, 22:30ean.

Diskografia

Sei disko argitaratu dituzte orain arte: *Zea mays* (1998), *Elektrizitatea* (2000), *Harrobian* (2002), *Sortuz, grabitatearen aurka (*2005), *Morphina* (2007) eta *Era* (2010), hain zuzen ere. Azken hori, taldekideen esanetan, aurrekoak baino dantzagarriagoa, zuzenagoa eta positiboagoa da.

Aitor Biain | Ganbara abesbatzako zuzendaria

"Ganbarako harrobiak bi kontzertu dakartza"

Asteburuan musika erlijiosoa eta musikala izango ditugu Ganbarako harrobiaren esku

M.G. | OÑATI

Asteburu honetan, gaur eta bihar arratsaldean, Ganbarako harrobiaren kontzertu bi entzuteko aukera izango dugu. *Musika erlijiosoa begiratzeko beste modu bat* ekimenaren barruan horietako bat.

Zein da ekimen horren helburua?

Hirugarren urtea da *Musika erlijiosoa begiratzeko beste modu bat* ekimena antolatzen duguna, eta helburu nagusia da musikagile garaikideek konposatutako pieza erlijioso bereziak aurkeztea.

Aurrekoetan, zein lanekin aurketu duzue ekimena?

Joan diren bi urteetan Ganbara Gazte taldekoek rock eta jazz kutsuko pieza erlijiosoak eta euskal folkloreko instrumentuekin osatutako abestiak eskaini zituzten.

Zer entzuteko aukera izango dugu oraingoan?

Edizio honetan hitzordu bikoitza izango dugu: gaur, 19:30ean, Arantzazuko basilikan Ganbara Gazte taldea izango da emanaldiaren protagonista, Aitor Olea eta Eli Mendiaratz organistekin batera; zapatuan, berriz, 19:00etan, Santa Ana antzokian, gainontzeko talde guztien txanda izango da. Ganbara Txiki, Ganbara Txikitxoak eta Tailerretako taldeek azken hilabeteetan landutako abesti eta dantza guztiak aurkeztuko dituzte jendaurrean.

Aitor Biain. | GOIENA

Zeinek emango dio hasiera kontzertuari?

Tailerretako hiru taldeak izango dira kontzertuari hasiera emango diotenak, *Fit for fun* (Ondo pasatzeko prest!) musikala antzeztuta; hain zuzen ere, kirola egitea eta osasuntsu jatea zein garrantzitsua den gogoraraziko digute. Horren ondoren, Ganbara Txikiren txanda izango da, eta talde horrek Pazko astean Valentzian joko dituen abestiak aurkeztuko ditu; jarraian, Ganbara Txikitxoak taldeak abestuko du. Eta kontzertua amaitzeko, talde guztiek elkarrekin abestuko dute.

ERRAMU ZAPATUKO FERIA 2012
Bergara

Ondo pasau Erramu Zapatuan!

Usoa • Bule • Etxagi • Euxebio II • Ariznoa • Zunbeltz • Sirimiri • Iraho • Azpeitxi Agirrebeña • Irish Pub Galways • Kayak • Toki Ona • Kai

Debagoieneko **PROFESIONAL LIBERALAK**

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA
BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA
BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ
BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA
DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Aukera paregabea. 204.000 euro. Eguzki dorrean etxebizitza salgai. Eraberritua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua. Denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. Interesatuok deitu telefono honetara: 650 01 05 15

Eskoriatza. Erdigunean etxebizitza ia berria salgai. 102 metro koadrokoa. Duplexa. Bi logela, ikasteko gela, bi komun, sukaldea, eta egongela handia. Garajea eta trastelekua. Beherapen oso handiarekin. 245.000 euro. Deitu 675 71 16 93 edo 688 67 63 96 zenbakietara.

103. ERRENTAN EMAN

Aramaio. Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela. Bi komun. Argitsua. Prezio onean. 647 22 09 38 edo 665 72 28 46

Bergara. Erdigunean 72 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. Eguzkitsua. 606 65 58 08 edo 660 04 25 25

